



**ADMINISTRATIO KLAUSULA BEREZIEN AGIRIA, PROZEDURA
IREKIAREN BIDEZ, HONAKO KONTRATAZIO HAU EGITEKO: EUSKAL
AUTONOMIA ERKIDEGOKO ENERGIA EOLIKOAREN BIGARREN
LURRALDE ARLOKO PLANA ETA BERE INGURUMEN
IRAUNKORTASUNAREN TXOSTENA IDAZTEKO AHOLKULARITZA
ETA LAGUNTZA ZERBITZUAK**

ESPDIENTE ZENB.:

EER/10/008-A

PROZEDURA IREKIA

Bilbon, 2010eko abuztuaren 5ean
José Ignacio Hormaeche Azumendi jn.
EEEko kontseilari zuzendari nagusia



ADMINISTRAZIO KLAUSULA BEREZIEN AGIRIA, PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ, HONAKO KONTRATAZIO HAU EGITEKO: EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ENERGIA EOLIKOAREN BIGARREN LURRALDE ARLOKO PLANA ETA BERE INGURUMEN IRAUNKORTASUNAREN TXOSTENA IDAZTEKO AHOLKULARITZA ETA LAGUNTZA ZERBITZUAK

Espediente zenbakia: EER/10/008-A

Energia Eolikoaren Lurralde Arloko Plana maiatzaren 14ko 104/2002 Dekretuaren bidez onartu zen behin betikoz. Plan edo dokumentu horretan, EAEn parke eolikoak jartzeko kokagune egokienak identifikatu eta hautatzen dira, garai hartan indarrean zegoen araudia eta ingurumen, teknika eta energia irizpideak kontuan hartuz; baita sasoi hartako informazio eskuragarria aintzat hartuta ere.

Dokumentu horretan identifikatu eta hautatzen ziren kokagune batzuk garatu dira; beste batzuk, aldiz, oso eztabaidatuak izan dira eta kontrako jarrerak eduki dituzte, Energia Eolikoaren Lurralde Arloko Plana egiteko erabili ziren irizpideak zaharkituak geratu zirela iritzita.

Hori horrela, 2008. urtean Eusko Legebiltzarrak legez besteko proposamena onartu zuen, eta agintzen du Energia Eolikoaren Lurralde Arloko Plana berraztertu eta gaurkotzeko, energia berriztagarrien esparruaren barruan. Oraingo planaren berrazterketak bigarren plan baten idazketa eta onarpena ekarri beharko du.

I.- KONTRATUAREN XEDEA ETA GAI OROKORRAK

1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea hauxe da: Industria, Berrikuntza Merkataritza eta Turismo Sailari laguntza teknikoa eta aholkularitza ematea, Euskal Autonomia Erkidegoko Energia Eolikoaren Bigarren Lurralde Arloko Plana (aurrerantzean LAP) idazteko eta hari lotutako Ingurumen Iraunkortasunaren Txostena (aurrerantzean IIT) prestatzeko. Hori guztia baldintza teknikoen arabera, kontratatzen den zerbitzua zuzentzen duena, eta haren ezaugarriak zehazten dituen, Baldintza Tekniko Berezien Agirian adierazten direnak (VIII. Eranskina).

2. KONTRATUKO OINARRIZKO ZERBITZUEN DESKRIBAPENA

Kontratu honen helburua da aholkularitza teknikoa ematea, bai Energia Eolikoaren Bigarren Lurralde Arloko Plana prestatzeko eta bideratzeko fase ezberdinetan, bai hari lotutako Ingurumen Ebaluazio Estrategikoa prestatzeko eta bideratzeko fase ezberdinetan. Nagusiki, honako lan hauek egin beharko dira:

- a) Energia Eolikoaren LAP behin betiko zertu ea onartzeko behar diren dokumentu guztien prestatzea teknikoa, hala nola Aurrerapena, Memoria, Energia Eolikoaren Bigarren Lurralde Arloko Planaren planoak eta zehaztapenak edo hari lotutako Ingurumen Iraunkortasunaren Txostena.
- b) Fase ezberdinetan Energia Eolikoaren LAP eta hari lotutako ingurumen ebaluazioa bideratzeko behar den laguntza teknikoa ematea. Lan horien nondik norakoa, modu orientagarrian, hauexek izango liriteke: bileretan parte hartzea, fase ezberdinetan bideratzeko behar diren txosten teknikoak prestatzea, kontsultei eta alegazioei erantzutea eta lan zein koordinazio bileren ondorioen inguruko txostenak eta aktak idaztea.

3. KONTRATUZKO AGIRIAK

Hauek dira kontratuzko izaera duten agiriak:

- a) Administrazio-klausula berezien agiria (AKBA).
- b) Baldintza tekniko berezien agiria.
- c) Kontratua formalizatzeko agiria.
- d) EEEK onartutako lan-programa.



4. KONTRATAZIO ORGANOA

Energiaren Euskal Erakundea (aurrerantzean "EEE" edo "Erakunde Kontratatzaila") da erakunde kontratatzaila. SPKLeko 3.3 artikuluan araututakoaren arabera, EEE ahalorde adjudikatzailea da, Lege aipatuaren ondorioetarako.

5. KONTRATUAREN ARAUBIDE JURIDIKOA

5.1. Kontratua izaera pribatukoa da eta jarraian aipatuko ditugun arau eta agiriek zuzentzen dute.

5.2. (Lehentasunezko hurrenkeran) hauek dira kontratua zuzentzen duten agiriak:

- a) Administrazio-klausula berezien agiri honetan jaso diren klausulak.
 - b) Baldintza tekniko berezien agirian jaso diren klausulak.
 - c) SPKLeko 174. artikuluan definitutako baldintzetan, arautze harmonizatupeko kontratuen kasuan eta agiri honetan berariaz aurreikusten diren beste alderdietan ere.
 - d) 1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, zeinaren bidez onartzen den Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Legearen Araubide Orokorra (APKLAO), betiere, bertan adierazitakoa ez badago SPKLen aurreikusien kontra, kontratisten gaitasun- nahiz kaudimen-arauei, publizitateari, prozedurei eta esleitze-moduei buruz nahiz agiri honetan berariaz zehaztu diren gaietan.
 - e) Kontratuzko izaera duten agiriak.
- Eta, arautzeak eragiten dien neurrian:

- a) Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa.
- b) Estatuko nahiz Euskal Autonomia Erkidegoko kontratazioa arautzen duen beste edozein xedapen, oraingo honi aplikatzeko bada.

Zuzenbide pribatuaren arauak aplika daitezke ebazteko kontratua interpretatzearen, haren ondorioen, hura betetzearen eta igarotzearen ondorioz sor daitezkeen auziak.

5.3. Kontratuko zeinahi baldintza edo arestian aipatu agiriak ez ezagutzeak ez du enpresaburua salbuetsiko horiek bete behar izatetik.

6. KONTU FISKALEI, INGURUMENARI, EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNARI, ENPLEGUA BABESTEARI, LANEKO BALDINTZEI ETA LANEKO ARRISKUAK PREBENITZEARI BURUZKO INFORMAZIOA.

Kontratu honetan interesa duten enpresek fiskaltasunari buruzko informazioa lor dezakete foru aldundietan.

Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Enplegua eta Gizarte Segurantzza Saileko Lana eta Gizarte Segurantzza Zuzendaritzan egongo da enplegua babesteari, laneko baldintzei nahiz laneko baldintzei buruzko gaietan indarrean diren xedapenei buruzko informazioa. Horiek guztiak gehi kontratuaren agirietan aurreikusi klausula gehigarriak aplikatzekoak izango dira kontratua exekutatzeko orduan.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumena eta Lurraldearen Antolamendua Saileko Ingurumen sailburuordetzan egongo dira –IHOBEn sozietate publikoaren bidez– kontratua exekutatzeko aplikatzekoak diren ingurumen auziei buruzko indarreko xedapenen informazioa eta kontratuko agirietan aurreikusi klausula gehigarriak.

Halaber, EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Erakundearen aurkituko dute emakumeen eta gizonen arteko berdintasun gaietan indarrean diren eta kontratua exekutatzeko orduan aplikagarriak diren xedapenei buruzko informazioa, bai eta kontratuko agirietan aurreikusi diren klausula gehigarriei buruzko informazioa ere.

7. GEHIENKO AURREKONTUA

Lizitazioaren gehieneko aurrekontuaren zenbateko hirurehun mila eurokoa (300.000€) da, gehi kantitate horri dagokion BEZa.

8. KONTRATUAREN PREZIOA ETA ORDAINKETA

Kontratuaren prezioa kontratuaren esleipenetik aterako dena izango da eta ez du gaindituko baldintza tekniko berezien agiriko 7. klausulan adierazitakoa.



Kontratuko prezioaren barne izango dira ezein motatako zerga, tasa eta kanon aplikagarri guztiak, bai eta prestaziotik erator daitekeen edo agiri honetan jasotako betebeharrak betetzearen ondorioz esleipendunari sortzen zaion zeinahi gastu ere. Salbuespen gisa, honako kontzeptu hauek ez dira prezio horren barruan:

- Energia Eolikoaren LAP bideratzeko argitaratu behar diren prentsa eta buletin argitalpenen kostuak, indarrean dagoen legeriak eskatzen duen bezala.
- Energia Eolikoaren LAP editatzeko azken dokumentuaren kostuak, behin betiko argitalpena izango dena.
- Zerbitzua ematen den bitartean, EEEK bere gain hartu nahi izango dituen beste gastu batzuk.

Kontratuaren prezioa zatikako ordainketa hauen arabera egingo da:

- Kontratua sinatzean, %25
- Energia Eolikoaren LAPen eta Ingurumen Iraunkortasunaren Txostenaren Aurrerapena prestatu ondoren, %25
- Energia Eolikoaren LAP behin-behinean onartzeko dokumentuak prestatu ondoren, %25
- Planaren behin betiko onarpenaren proposamena egiteko eta argitaratzeko, azken dokumentuak prestatu ondoren (Energia Eolikoaren LAP, Ingurumen Iraunkortasunaren Txostena, dokumentazio grafikoa eta eranskinak), %25

9. PREZIOAK BERRAZTERTZEA

Kontratua exekutatu da enpresa kontratistaren arrisku eta benturaz kontura, eta ez da prezioen berraztertzerik izango.

10. KONTRATUA BETETZEKO EPEA ETA KONTRATUAREN IRAUPENA

10.1 Arau orokorra.

Lanen edo faseen egutegia zehatza alde aurretik finkatzea zaila denez gero, dagokion erakundearen aldetik Energia Eolikoaren LAP behin betiko onartu arte egongo del kontratua indarrean ezartzen da. Nolanahi ere, kontratua gauzatzeko gehieneko epea hiru (3) urtekoa izango dela aurreikusten da; baldin eta lehenago onartzen bada, laburragoa izango litzateke.

Lizitatuzaileek lan programa orientagarria aurkeztu beharko dute, eta bertan honako zatikako epe hauek kontuan hartu behar dira:

- a) 15 egun, kontratua sinatzen den egunetik. Erakunde Kontratatzailearekin bilera, lan egutegiaren eta eskemaren proposamena aurkezteko eta onartzeko.
- b) 6 hilabete, kontratua sinatzen den egunetik. Energia Eolikoaren LAPen eta Ingurumen Iraunkortasunaren Txostenaren Aurrerapenaren prestaketa. Epe hori luza daiteke, Erakunde Kontratatzailearekin ados jarrita, baldin eta sinatzen den egunetik bi (2) hilabeteko epean 183/2003 Dekretuaren 6. eta 4/90 Legearen 17. artikuluetan aipatzen diren txostenak jasotzen ez badira.
- c) 2 hilabete, jendaurreko informazio fasean alegazioak edo iradokizunak jasotzen direnetik. Aipatutako alegazio edo iradokizun horiek laburbiltzen, Energia Eolikoaren LAPean integratzen eta, behar izanez gero, haiei erantzuten dituen txostena. Era berean, beharrezkoa izango den fasetan, Energia Eolikoaren LAP berraztertzea, alegazio eta iradokizunetan oinarrituta.
- d) Hilabete bat, ingurumen erakundearen behin-behineko txostena (IPIA) eta betiko txostena (IDIA) jasotzen direnetik. IITen berrikuspena adierazitako alderdietan eta Energia Eolikoaren LAP berraztertu beharri buruzko txostena.

10.2. Kontratua luzatzeko prozedura

Ez dagokio.

11. ESLEITZEKO IZAPIDEAK, PROZEDURA ETA MODUA

11.1. Kontratazio-espeditzea ohiko izapidezkoa da.

11.2. Kontratu hau prozedura irekiaren bidez esleituko da, eta esleitzeko moduari dagokionez, kontuan hartuko da –agiri honetako 18. klausulan araututakoaren arabera– eskaintzak balioesteko irizpide-aniztasuna.



II.- KONTRATAZIO PROZEDURAN PARTE HARTZEA

12. PARTE HARTZEKO ARAU OROKORRAK

12.1 Baldintza orokorrak:

- 12.1.1. Enpresa berak ezin izango du proposamen edo parte hartzeko eskabide bat baino gehiago aurkeztu, ez banaka ezta aldi baterako enpresa-elkarte bat baino gehiagoko kide moduan ere. Eta banaka parte hartzen duenak ezin izango du parte hartu beste enpresa batzuekin aldi baterako elkartu bada. Arau horiek ez badira betetzen, ez dira onartuko aipatu arauak urratuz izenpetu diren parte-hartze eskaintza edo eskabideak.
- 12.1.2. Kontratazio-prozeduran parte har dezakete pertsona natural edo juridikoek, espainiarrek nahiz atzerriarrek, jarduteko gaitasun osoa dutenek, kontratatze debekurik ez dutenek eta, agiri honetan finkatu irizpideekin bat etorriz, ekonomia- eta finantza-kaudimena nahiz gaitasun teknikoa eta profesionala egiaztatzen dutenek, edo bestela, agiri honetako 14.2.8 klausulan eskatzen den klasifikazioa dutenek.
- 12.1.3. Aipatutakoez gainera, lizitatuzaileek kontratu hau behar bezala gauzatzeko, nahikoa baliabide material nahiz pertsonalez osatutako erakundea edo elkartea ere izan beharko dute; baita den jarduera edo prestazioa gauzatzeko aldera, kasuan kasu eska daitekeen enpresa-gaikuntza edo gaikuntza profesionala ere.
- 12.1.4. Pertsona juridikoek soilik egin ditzakete eskaintzak beren estatutu edo sortze-arauen arabera berezko dituzten xedeetan, helburuen edo jarduera-eremuen barruan diren prestazioak dituzten kontratu-erako.

12.2. Bateriaezintasunak:

- 12.2.1. Kontratuko zehaztasun teknikoak edo prestatze-agiriak idazten parte hartu duten enpresek ezin izango dute lizitazioan parte hartu, betiere, parte-hartze horrek lehia librea oztopatzen badu edo gainerako enpresek alderatuta pribilegioak sortzen badira enpresa batzuen alde.

12.3. Ondorioak:

Parte hartzeko eskaintza edo eskabide hau aurkeztuz enpresak aditzera ematen du baldintzarik gabe onartu dituela agiri honetako klausulak, baldintza teknikoen agirikoak eta gainerako kontratu-agirietakoak, salbuespenik gabe; baita aurkeztutako datu guztien zehaztasunari buruzko erantzukizun-adierazpena eta prestazioa kontratatze baldintza eskatu guztiak betetzen dituela ere.

13. ESKATUTAKO AGIRIAK AURKEZTEKO EPEA ETA MODUA

13.1. Agiriak eta aurkezteko epea

Prozeduran interesa duten enpresek aurkeztu beharko dituzte agiri honetako 13.2 klausulan aipatu parte-hartze eskabideak, 2010eko irailaren 17ko 12:00ak baino lehen. Horixe izango da parte hartzeko eskabideak aurkezteko muga-eguna.

13.2. **Agiriak biltzen dituzten gutun-azalei buruzko kanpo-adierazpenak.** Kasu guztietan, gutun-azalak itxita egongo dira eta gutun-azal bakoitzaren kanpoko aldean ondoko datu hauek idatziko dira, ondo irakurtzeko moduan:

- a) Agiri honetan aipatutakoen artean zer gutun-azal den (A gutun-azala: "Dokumentazio Orokorra. Gaitasuna eta Kaudimena"; B gutun-azala: "Formula matematiko bidez ebaluatu ahal diren irizpideak"; C gutun-azala: "Iritzi bidez ebaluatu ahal diren irizpideak").
- b) Zer kontratutan parte hartu nahi den (adierazi behar dira espediente zenbakia eta kontratuaren xedea laburturik).
- c) Enpresaren izena.
- d) Parte hartzeko eskabidea edo proposamena izenpetzen duenaren izen-abizenak eta zeren gisa egin duen, helbidea, telefono zenbakia, fax zenbakia eta posta elektronikoaren helbidea, Erakunde Kontratatuzailearen jakinarazpenak jaso ahal izateko.
- e) Gutun-azalek, nahitaez, enpresak edo hura ordezkatzeko duen pertsonak izenpetuta egon beharko dute. Aldi baterako enpresa-elkartearen bidez hainbat enpresak eskaintza egiten badute, guztiek sinatuko dituzte gutun-azalak.



13.3. Aurkezteko tokia eta euskarria

13.3.1. Agiriak EEEen aurkeztuko dira, Bilboko Urkixo zumarkaleko 36.ean. Aipatu agiriak aurkeztu beharko dira bai paperean baita euskarri elektronikokoan (pdf.) ere, dago(z)kion CDan edo CDtan.

13.3.2. Agiriak posta arruntez bidaltzen badira, enpresak justifikatu beharko du bidaltzea zer egunetan utzi duen postetxean, eta kontratazio-organoari fax edo telegrama bidez jakinarazi beharko dio bidalketa gauzatu duela. Bi jardura aipatuak, hau da, agiriak bidaltzea eta kontratazio-organoari bidalketaren berri ematea, gauzatu beharko dira iragarkian finkatu aurkezte-epaia amaitzen den eguna eta ordua baino lehen.

Bi baldintza horiek betetzen ez badira, ez dira onartuko; ezta aurkezteko epea amaitzen den eguna eta orduaz geroztik jaso diren agiriak ere. Nolanahi ere, baldintza aipatuak bete arren muga-egunaren hurrengo hamar (10) egun naturalak igarotzean ez badira agiriak jaso, agiriak ez dira inola ere onartuko.

Aipatutakoa kontratazio organoari posta elektronikoz bidaltzen bada, baliozkoa izateko honako datu hauek jaso behar ditu: behar bezala egiaztatuta geratzen badira bidalketa eta harrera, datak eta komunikazioen eduki osoa eta modu egokian identifikatzeko igorlea eta jasotzailea. Halakoetan, kopia edo inprimakia jasoko da eta erregistratu ondoren, espedienteari erantsiko zaio.

13.4. Agiri aurkeztuei buruzko argibideak.

13.4.1. Enpresak aurkez ditzake agiri eskatuaren jatorrizko agiriak edo horien kopia egoki konpultsatuak EEEren edo notarioaren aldetik, aldi baterako bermea izan ezik, zeinaren jatorrizko agiria aurkeztu beharko den.

13.4.2. Agiri aurkeztuek idatzirik egon behar dute Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako batean (euskaraz ala gaztelaniaz). Beste hizkuntza batean idatzirik badaude, agirien itzulpen ofiziala ere aurkeztu beharko da.

13.5. Agiriak egiaztatzea.

EEEk gutun-azalean sartutako agiriak egiazkoak diren egiazta dezake, hala kontratua esleitu aurretik nola ondoren edo kontratua gauzatu bitartean, eta enpresak emandako datu nahiz zehaztasunak gezurrezkoak badira, hori kontratua deuseztatzeke arrazoi izan daiteke, enpresari egotz dakioken hutsegitea izateagatik; horrek behin-behineko bermea galtzea eragin dezake, edo, bermerik jarri ez edo jartzeko eskatu ez bada, berme horren besteko kalte-ordaina ordaindu beharra; gainera, EEEri eragindako kalte eta galerak bermetzat jarritako diru-zenbatekoaz gorakoak badira, bermeaz gorako alde hori ere ordaindu beharko da.

13.6. Aldagaiak.

Ez da onartuko aldagaiak aurkeztea.

14. "A GUTUN-AZALA": "DOKUMENTAZIO OROKORRA. GAIATASUNA ETA KAUDIMENA"

14.1 Arau orokorrak.

14.1.1. Kanpoko baldintzak eta gutun-azalaren edukia: Gutun-azal horrek izango ditu 13.2 klausulan aipatu kanpo-baldintzak eta, barruan, "Agirien zerrendan" (14.2 klausulan) zehazten diren agiriak sartuko dira.

14.1.2. Lizitatzailen eta enpresa sailkatuen erregistro ofizialak:

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean izena emanda dauden enpresek ez dute aurkeztu beharrik zerrendako 14.2.3, 14.2.4, 14.2.5 eta 14.2.6 klausuletan jasotako agiriak, beti ere, indarreko egiaztagiriek ekartzen badituzte aipatu klausuletan aipatzen diren datuak, eta gutun-azal horretan ondoko hauek sartzen badira:

a) Erregistro aipatuan erregistraturik egotearen indarreko egiaztagiria.

b) Enpresaren ardurazko aitortza, zeinean adieraziko den egiaztagirian jasotako inguruabarretan ez dela aldaketarik izan. Esleipendun gertatuz gero, adierazpen hori errepikatu beharko da kontratua formalizatzeko agirian.

Kontratisten Erregistro Ofizialaren egiaztagiria eta erantzukizun-adierazpen aipatuak ez dute lizitatzailen salbuesten hizpide dugun gutun-azalean 14.2.1, 14.2.2, 14.2.7, 14.2.8, 14.2.9, 14.2.10 eta 14.2.11, 14.2.12 eta 14.2.13 klausuletan aurreikusi derrigorrezko agiriak sartzetik.

2. Lizitatzailen eta Enpresa Sailkatuen Estatuko Erregistro Ofizialean izena emanda egotearen egiaztagiria izango ditu SPKLeko 72.1 artikuluan ezarritako ondorioak.

14.1.3. Atzerriko enpresek kontuan izan behar dute aurreko 13.4.2 klausulan hizkuntzari buruz adierazitakoa, hau da, agiriek bi hizkuntza ofizialetako batean egon behar dutela idatzirik eta, hala ez bada, bi hizkuntza ofizialetako batera egon behar dutela itzulita. Horretaz gain, agiri honetako 14.2 klausulan eskatzen duen dokumentazioarekin batera, kontratuarekin zuzenean edo zeharka zerikusia duten auzi guztietan edo sor



daitezkeenak Bilboko epaitegi eta auzitegien mende egongo direla adierazpena aurkeztuko dute, eta lizitatzailari egoki dakioken atzerriko jurisdikzioari uko eginez.

14.2. Agirien zerrenda.

14.2.1. Agirien zerrenda: Aparteko orri batean jasoko da gutun-azaleko edukiaren zerrenda, zenbakien bidez ordenan jarrita.

14.2.2. NAN: Bere izenean edo ahaldun gisa, parte hartzeko eskabidea edo eskaintza sinatzen duen pertsonaren Nortasun Agiri Nazionala. Atzerriko pertsona fisikoen kasuan, indarreko agiri baliokidea aurkeztu beharra dago.

14.2.3. Eskriturak eta estatutuak: Kontratazioan interesa duen enpresa pertsona juridikoa denean, aurkeztuko ditu eraketa-eskriturak, aldaketen eskriturak eta estatutuak, horiek guztiak Merkataritzako Erregistroan jasotakoak; betiere, aplika dakioken merkataritza-legeriarekin bat etorritik, baldintza hori betetzea eska badakioke.

Ezin eska badakioke, aurkeztu beharko du eraketa-eskritura edo -agiria, estatutuen aldaketen agiria, edo sorrerako egintzaren berri ematen duen agiria. Bertan, jarduera arautzeko arauak agertu beharko dira, eta inskribaturik egon beharko dute dagokion erregistro publikoan, pertsona juridiko motaren arabera.

Espainiarrak ez diren Europar Batasuneko herrialdeetako enpresaburuak badira, nahikoa izango dute merkataritza edo lanbide erregistroan inskribatuta daudela kreditatzea.

Gainerako enpresaburu atzerritarrek euren herrialdeek Espainian duten misio diplomatiko iraunkorrak edo kontsul-etxeak emandako txostena aurkeztu behar dute.

14.2.4. Ahalordetzea: Parte hartzeko eskaintza edo eskabidea sinatzen duen pertsonak ez badihardu bere izenean, edo kontratazioan interesa duen enpresa sozietatea edo pertsona juridikoa denean, sinatzaileak aurkeztu beharko du adina ahalmen ematen duen ahalordetzea. Enpresa interesduna pertsona juridikoa bada, ahalorde horrek Merkataritzako Erregistroan izena emanda egon beharko du. Ahalordea baldin bada ekimen jakin batean erabiltzekoa, ez da beharrezkoa izango, Merkataritzako Erregistroaren Arautegiko 94.1.5 artikuluan xedatutakoaren arabera, hura Merkataritzako Erregistroan erregistraturik egotea.

14.2.5. Enpresa-gaikuntza edo gaikuntza profesionala: Aurkeztu beharko dira, baita ere, kontratuaren xedea dela-eta eska daitekeen enpresa-gaikuntza edo gaikuntza profesionala egiaztatzen duten agiriak.

Azpikontratazioa onartzen baldin bada, kontratu hau sinatu ahal izateko behar den kaudimena frogatzeari begira, kontratista beste erakunde batzuen kaudimen edo bitartekoez balia daiteke, erakunde horiekin izan ditzakeen harreman juridikoen izaera edozein dela ere; betiere, kontratua aurrera eramateko, bitarteko egokiak izango dituela egiaztatuz gero. Kontratua egiteko aipatutako bitartekoak izango dituela egiaztatzeko asmoz, eta azpikontratisten aldetik egin beharreko lanak ez direla kontratuaren prezioaren %50 baino gehiago izango frogatu ondoren.

Azpikontratazioari dagokion konpromisoa hartu beharko du, honako baldintza hauen arabera:

- a) Hasieran dokumentu pribatuan aurkeztu ahal izango da. Hala ere, enpresa behin-behinean esleipenduna izango balitz, eskritura publikoan dokumentu beharko litzateke.
- b) Kontratu hau gauatzeko esleipendun aukeratuta izanez gero, adierazi beharko du azpikontratatisten esku jarriko dituela behar diren bitarteko guztiak kontratuaren zatia aurrera eramate aldera.
- c) Azpikontratista izango dena izenaren bidez identifikatu beharko da, edo behientzat profil profesionalaren bidez. Esleipendunak azpikontrata horretaz gain, beste azpikontrata batzuk azpikontratatu nahi baditu, EEEren alde aurretiko berariazko baimena lortu beharko du.

14.2.6. Kontratatzeko debekuak: Kontratuaren erreferentzia espresuki dakarren egiaztagiria aurkeztu beharra dago, erakusten duena enpresa interesduna ez duela SPKLeko 49. artikuluan jasotako kontratazio-debekurik.

Aipatu berri duguna egiazta daiteke SPKLeko 62. artikuluan aurreikusi moduetako batean, edo II. eranskinean dagoen erantzukizun-adierazpenaren bidez.

14.2.7. Hautagaiek egiaztatu beharreko kaudimena eta sailkapena

Hautagaiek egiaztatu beharko dute ekonomia- eta finantza-kaudimena nahiz gaitasun teknikoa edo profesionala, jarraian aipatuko ditugun baliabideen bidez. Egiaztatu beharko dute, baita ere, ondoko talde, azpitalde edo kategoria hauetako batean obra-kontratista moduan sailkatutik daudela:

Ekonomia- eta finantza-kaudimena:

- Azken hiru (3) ekitaldietan fakturazioaren zifra hirurehun mila (300.000) eurokoa baino handiagoa izan dela egiaztatzea edo kreditatzea Merkataritzako Erregistroan edo dagokion erregistro ofizialean



aurkeztuak eta azken hiru ekitaldiei buruzkoak diren urteko kontuak nahiz kontu-ikuskaritzako txostenak.

- Negozioen guztizko kopuruari buruzko adierazpena.
- Finantza-erakundeen txosten egokia.

Gaitasun teknikoa eta profesionala:

- Lizitatzailerak azken hamar (10) urteotan gauzatu dituen honen antzeko lanen deskribapena egin beharko dute, lanen onuraduna, xedea eta zenbatekoa azalduz. Lanen jasotzailea sektore publikoko erakunde bat izan baldin bada, dagokion organo aginpidedunak sinatutako ziurtagirien bidez egiaztatuko dira lanak. Jasotzailea pertsona pribatua bada, aldiz, azken horrek sinatutako ziurtagiria aurkeztuko da, edo bestela, lizitatzaileraren adierazpenaren bitartez. Lehiaketan parte hartu ahal izateko, kontratu honen antzeko hiru (3) lan egin dutela egiaztatu behar dute enpresek, hau da, lurralde antolamenduari edo baliabide eolikoaren antolamenduari lotutako lanen idazketan aritu diren enpresek. Ez dira kontuan hartuko hirigintza planeamenduan jardun diren enpresak.

- Kontratuaren gauzatzean lanean ariko diren zuzendarien, teknikarien eta enpresako gainerako arduradunen deskribapena.

Kontratuan aipatzen diren lanak aurrera eramateko, enpresa esleipendunak lan talde multidisziplinarioa eduki behar du, Energia Eolikoaren LAPen integratu behar diren gai guztiak jorratzen dituzten profesionalen osatua. Hori horrela, lanean arituko diren langileen artean, gutxienez honako giza baliabide hauen gaitasuna egiaztatu beharko da:

- Lurralde antolamendua espezializatutako abokatua edo arkitektoa.
- Biologian, Ingurumen Zientzietan edo antzekoetan lizentziaduna, inpaktuen ebaluazio eta aurreikuspenaren espezializatua, plan zein egitasmo eskalan.
- Goi mailako ingeniaria edo antzeko titulazioa duena, garapen eolikoetan espezializatua.
- Meteorologoa edo antzeko titulazioa duena, aurreikusteko eredu eolikoaren prestaketan espezializatua. Profesional horiek duten espezializazioa frogatzeko, kasuan kasuko arloan hiru (3) urteko esperientzia egiaztatzen duten dokumentuak aurkeztu beharko dituzte.

Sailkapena

Ez da eskatzen.

14.2.8. Kontratua gauzatzeko baliabideak adskribatzeko eta baldintza bereziak betetzeko konpromisoa: Agiri honetako **I. eranskinean** ageri den baliabide pertsonal nahiz materialak adskribatzeko konpromisoa. Behin gonbidaturik, hautagaia behin-behineko esleipendun gertatzen bada, egiaztatu beharko du baliabide horiek egiazki erabiltzeko moduan dituela eta adierazi beharko du gauzatzeko baldintza bereziak nola beteko dituen.

14.2.9. Izenak eta lanbide-prestakuntza: Aurreko klausulan aipatu baliabideak adskribatzeko konpromisoaz gainera, hautagaiek eman beharko dituzte kontratua gauzatzeko duten langile arduradunen izena eta lanbide-prestakuntza, hautagaia behin-behineko esleipendun gertatzen bada, egiaztatu beharko du baliabide horiek egiazki erabiltzeko moduan dituela.

14.2.10. Talde bereko enpresen zerrenda. SPKLeko 129.4 artikuluko bigarren paragrafoan eta APKLAOko 86.1 artikuluan ezarritakoa betetze aldera, talde bereko enpresen zerrenda aurkeztu beharko da. Talde bereko enpresatzat hartuko dira Merkataritzako Kodeko 42.1 artikuluan zehaztu baldintzak betetzen dituztenak. Horrez gain, zehaztuko da talde bereko enpresetatik zeinek duten eskaintza aurkezteko interesa.

14.2.11. Azpikontratatistak: Enpresek zehaztu beharko dute kontratuaren zer parte azpikontratatu nahi duten eta parte azpikontratatu haien eskaintza guztizkoaren zer ehuneko den (sekula ez zenbatekoa). Eman beharko dute obren parte azpikontratatu gauzatzeko duten azpikontratatisten izena edo enpresa-profila; azken hori kaudimen profesional edo teknikoaren baldintzetan adierazitakoa kontuan harturik.

14.2.12. Behin-behineko bermea: Lizitatzailerak lizitazioaren gehieneko aurrekontuaren ehuneko hiru (%3) den diru kantitatea, BEZ gabe, aurkeztuko dute behin-behineko berme gisa (SPKLko 91. artikulua). Bermea honela osatu eta gordailutu beharko da:

- a) Eragiteko baimena duten bankuetako, aurrezki-kutxetako, kreditu-kooperatibetako, kredituko finantza establezimenduetako edo elkarren bermerako sozietateetakoaren batek emandako abalaren bidez. Aipatu abala gordailutu beharko da kontratazio-organoaren aurrean.
- b) Arloan eragiteko baimena duen erakunde aseguratzailearen batekin kauzio-asegurua kontratatzearen bidez. Aseguruaren egiaztagiria gordailutu beharko da kontratazio-organoan.

Abalaren eta kauzio-aseguruaren ereduak APKLAOren eranskinean ageri direnak izango dira. Kontratua behin betikoz esleitu ondoren, behin-behineko bermea bueltan emango zaie parte-hartzaile guztiei, kontratua



behin-behinekoz esleitu zaion enpresari izan ezik. Azken horri behin-behineko bermea atxikiko zaio, behin betiko bermea eratu arte.

14.2.13. Esleitze-lehentasunak: Kontratazioan interesa duen enpresak nahi baldin badu –betiere, horretarako baldintza egokiak gertatzen badira– hari aplikatzea 23.2 klausulan jaso diren esleitze-lehentasunak, hizpide dugun gutun-azalean ondoko agiri hauek sartu beharko ditu:

- a) Klausula aipatuko a) idatz-zatiko lehentasunari dagokionez, aurkeztu beharko dira Gizarte Segurantzako TC2 agiria –enpresan diren langileei buruzko egiaztagiria– eta enpresak sinatutako adierazpena, zeinean zehaztuko den 100eko 33ko edo gehiagoko ezgaitasun-ehunekoa duten langileen kopurua eta berorien nortasun agiriak.
- b) Klausula aipatuko b) idatz-zatiko lehentasunari dagokionez, enpresak aurkeztu beharko du lan elkartuko kooperatiba eta bigarren mailako edo maila txikiagoko kooperatiba izatearen egiaztagiria.
- c) Klausula aipatuko c) idatz-zatiko lehentasunari dagokionez, enpresak aurkeztu beharko du dagokion erregistro ofizialean erregistraturik egotearen egiaztagiria.
- d) Klausula aipatuko d) idatz-zatiko lehentasunari dagokionez, enpresak aurkeztu beharko du dagokion erregistro publikoan erregistraturik egotearen egiaztagiria eta, bestetik, adierazi beharko du konpromisoa hartzen duela aipatu klausulan aipatzen diren taldeetako pertsonekin gutxienez lanpostuen ehuneko 30 betetzeko.
- e) Klausula aipatuko e) idatz-zatiko lehentasunari dagokionez, Bidezko Merkataritza Antolakundea dela egiaztatzen duen dokumentua aurkeztu beharko du.

14.3. Aldi baterako enpresa-elkartea.

Hainbat enpresak parte hartu nahi dutenean aldi baterako enpresa-elkartean baturik, enpresa horietako bakoitzak egiaztatu beharko du, aurreko klausuletan araututakoaren arabera, jarduteko bere gaitasuna eta bere kaudimena, hau da, elkartea osatzen duten enpresa guztiek aurkeztu beharko dituzte “A” gutun-azaleko agiri guztiak, honako ezaugarri hauek kontuan hartuta:

- a) Lizitazioan parte hartzeko, zenbait enpresarik aldi baterako enpresa-elkartea eratzen badute, enpresa bakoitzak bere gaitasuna eta kaudimena egiaztatu beharko ditu, aurreko puntuetan adierazitakoaren arabera, eta, kasuan betetzekoa bada, SPKLeke 56.5 artikulua kontratisten sailkapenari buruz arautzen duena aplikatuko zaie.
- b) Aldi baterako enpresa-elkartean izaten badira Europar Batasunekoak ez diren enpresa nazional edo atzerritarrak edo EBko atzerritarrak, sailkapenik eskatzen baldin bada, lehen biek beren klasifikazioa kreditatu beharko dute, eta azkenek, aldiz, kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa zein kaudimen teknikoa kreditatu beharko dituzte.
- c) Hala eskatzen bada, behin-behineko bermea aldi baterako enpresa-elkartean parte hartzen duten enpresa guztiek edo haietako betek ezar dezakete; betiere, eskatzen den diru kantitate guztia jarriz, eta aldi baterako enpresa-elkartea osatzen duten enpresa guztiak era solidarioan bermatuz.

Aldi baterako enpresa-elkarte moduan parte hartu nahi dutenek, halaber, proposamen-idatzia aurkeztu beharko dute, zeinean ondoko hauek adieraziko dituzten: proposamena izenpetzen duten enpresen izenak eta inguruabarrak; enpresa bakoitzaren parte-hartzea; eta, azkenik, zer pertsona fisiko izendatuko duten, kontratutik eratortzen diren betebeharrak nahiz eskubideak betetzeko nahikoa ahalorde izango duen ordezkari edo ahaldun bakarra izan dadin. Agiri hori sinatu beharko dute aldi baterako enpresa-elkartea osatzen duten enpresa bakoitzeko ordezkariak. Kontratua enpresa-elkarteari esleitu bazaio, orduan elkartea eratzeke eskritura publikoa egin beharko da.

14.4 Baztertzeko arrazoiak

Erakunde Kontratatzaileak edo EEEK modu egokian arrazoitu ondoren, lehiaketatik kanpo geratuko dira honako akatsen bat duten proposamenak:

- (a) Dokumentazioa epez kanpo aurkeztea.
- (b) Eskatzen den lanbide/enpresaren gaitasuna egiaztatzeke dokumenturik ez aurkeztea.
- (c) Agiri honetan eskatzen den kaudimen ekonomikoa, finantzarioa, teknikoa eta profesionala behar bezala ez egiaztatzea.



- (d) Proposamen ekonomiko batzuk aurkeztea, bakarka edo beste enpresa lizitatzailer batzuekin batera elkartuta aldi baterako.
- (e) Agiri honetan edo Zehaztapen Teknikoen atalean eskatzen diren baldintzak ez betetzea.
- (f) SPKLen xedatutako beste edozein atal ez betetzea.

15. "B GUTUN-AZALA". "FORMULA BIDEZ EBALUATU AHAL DIREN IRIZPIDEAK"

15.1. Arau orokorrak.

Karatulan hala eskatzen bada, "B" gutun-azala aurkeztuko da, 13.2 klausulan aipatzen diren betekizunekin eta barruan jarraian azaltzen diren "dokumentuen zerrenda" egongo da:

15.2 Dokumentuen zerrenda:

15.2.1. Agirien zerrenda: Aparteko orri batean jasoko da gutun-azalaren edukiaren zerrenda, zenbakien bidez ordenan jarrita.

15.2.2. Eskaintza ekonomikoa: Agiri honetako IV. eranskina ereduari jarraiki egingo da eskaintza ekonomikoa. Lizitatzailerak eskaintza ekonomiko bakarra aurkeztuko dute, enpresak (enpresaburu bakarra bada) edo haren ordezkariak (enpresa pertsona juridikoa baldin bada) sinatua. Aldi baterako enpresa-elkarteen kasuan, agiri aipatua sinatu beharko dute elkartean parte hartzen duten enpresa guztien ordezkariak.

Eskaintza idatzi beharra dago agiri honetako IV. eranskinean ageri den ereduari jarraiki. Eskaintzen den prezioaren barne izango dira aplikatu beharreko zerga, tasa eta kanon guztiak, baita ere, eskaintza aurkeztetik erator daitezkeen edo agiri honetan jasotako betebeharrak betetzearen ondorioz esleipendunari sor dakioken zehazki gastu –BEZ salbu–.

Unitateko prezioak eta beste erlazio batzuk: Agiri honetan prezioa ezartzeko erantza unitateko prezio sistema aukeratu bada, lizitatzailerak unitateko prezioak eskaini beharko dituzte baldin eta baldintza tekniko berezien agirian aurreikusi baldintza teknikoak bete ez eta hasiera batean aurreikusitakoak baino garestiagoak badira. Aipatu eskaintza ekonomikoa egin beharko da agiri honetako VI. eranskinean ageri den ereduari jarraiki. Eskaintza ekonomikoaren ereduari bi atal bereizi dira: "Eskaintza ekonomiko orokorra" eta "Unitateko prezioak". Bietan lehenengoan zehaztuko dira proiektuaren baldintza normalean aplikatuko diren prezioak; bigarrean, aldiz, kasuan kasu zehaztuko diren inguruabar jakin batzuk gertatuz gero, batez ere, lanak atzeratuz eta agiri honetan aurreikusi ez diren baldintza teknikoak gertatuz gero, aplikatuko diren prezioak.

16 "C GUTUN-AZALA". IRITZI BIDEZ EBALUATU AHAL DIREN IRIZPIDEAK

16.1. Arau orokorrak.

"C" gutun-azalean 13.2 klausulan aipatzen diren betekizunekin aurkeztuko da eta barruan jarraian azaltzen diren "dokumentuen zerrenda" egongo da:

16.2 Dokumentuen zerrenda:

16.2.1. Agirien zerrenda: Aparteko orri batean jasoko da gutun-azaleko agirien zerrenda, zenbakien bidez ordenan jarrita.

16.2.2. Gutun-azal horren barruan sartuko dira iritzia ematearen bidez aplikatzekoak diren eta agiri honetako 13.2 klausulan aipatu diren esleipen-irizpideak balioesteko beharrezkoak diren agiriak.

17 B ETA C GUTUN-AZALEN KLAUSULA ERKIDEAK

17.1. Hobekuntzak: Eskaintzak balioesteko irizpideen artean, hobekuntzak deritzon kontzeptua agertzen badin bada, eskaintzen diren hobekuntzei buruzko agiriak aurkeztuko dira, ondoko hauek gogoan harturik:

- a) Hobekuntzek ez dute eraginik izango kontratuaren prezioaren gain eta agiri honetako V. eranskinaren arabera aurkeztuko dira eta, EEEK berariaz onartzen baditu, kontratuaren parte izango dira.



- b) Kontzeptua atalean azaltzen dira hobekuntza horien ezaugarriak, eta eskaintzaren balioespenean eragina izateko, agiri honetan ezartzen diren mugak errespetatu egin beharko dira.
- c) Edonola ere, eskaintzan jasotzen diren hobekuntza guztiak banan-banan aztertuko dira. Horrela, kontratazio-organoak erabakiko du kontratuan hobekuntza horietako bat, batzuk edo bate ere ez jasotzea.

17.2. Plana edo lan-programa: Eskaintzak balioesteko irizpideen artean, plana edo lan-programa kontzeptua azaltzen bada, bete beharko ditu baldintza teknikoaren agirian ezarri baldintzak, eta jarduera-denbora diagrametan adierazita, gutxienez honako datu hauek izango ditu:

- a) Zerbitzua ematean sartzen diren lanen nondik norakoa, eta lan horiei lotutako jarduera nagusien zerrenda.
- b) Zerbitzua emateko eta lana garatzeko erabiliko diren ekipo eta bitartekoen deskribapena, enpresaren arduradunak eta ordezkariak behar bezala identifikatuta.
- c) Jarduera bakoitzaren gutxi gorabeherako iraupena eta lanak egiteko zatikako epeak azalduta. Horretarako, denbora-unitateak astea eta hila izango dira, besterik esaten ez bada zehaztapen teknikoaren txostenean.
- d) Programatutako lanen hileroko balioespina eta metatua, esleitzeko prezioetan oinarrituta.

Eskaintzak balioesteko fasean, planaren edo lan-programaren azterketa eta balioespina egiteak ez du ekarriko EEEn oniritzi baldintzagabea. Esleitzekotan, aldeek adostuko dutena beteko da.

17.3 Konfidentzialtasuna: Beharrezkotzat joz gero, VII. Eranskinean ageri den ereduari jarraiki, enpresak zehaztu beharko du "C" gutun-azalean jaso eskaintzaren informazio eta alderdietatik zein diren konfidentzial, lotura izateagatik sekretu tekniko edo merkataritzako sekretuekin. Enpresak azaldu beharko ditu lotura horren arrazoiak. Eskaintza ekonomiko egina ez da inola ere ez konfidentziala izango.

18 ESKAINTZAK BALIOESTEKO IRIZPIDEAK

18.1 Formulak aplikatzearen bidez automatikoki ebalua daitezkeen irizpideak. **Balioespina: 0 eta 25 puntu artean**

a) Eskaintzaren prezioa (**Balioespina: 0 eta 25 puntu artean**)

Ausarkeriazko bajatzat joko dira, eta, beraz, ez dira onartuko, aurkeztutako eskaintza guztien batez betekoaren aldean, baja %15 edo handiagoa izango dutenak (24.1.2 klausula). Ausarkeriazko bajak baztertu eta gero, balioespina era honetan egingo da:

- Eskaintzarik apalenak puntuazio handiena jasoko du (25 puntu).
- Gainerako eskaintzak eskaintzarik apalenaren proportzioan balioetsiko dira, honako formula honen arabera:

$$V_x = 25 \times O_{EMB} / O_{EX}$$

Non:

- O_{EMB}: Eskaintza ekonomiko apalena
- O_{EX}: X enpresaren eskaintza ekonomikoa
- V_x: X eskaintzaren balioespina

18.2 Iritzia ematearen bidez ebalua daitezkeen irizpideak: **Balioespina: 0 eta 75 puntu artean**

Eskaintza teknikoaren integraltasunaren balioespina egitean, lanen garapen kontzeptuala eta ikuspuntu tekniko eta metodologikoa izango dira nagusituko diren irizpideak, baldintza teknikoaren agirian azaltzen den bezala. Balioespina honako atal hauetan banatuko da:

- 1) Azterketa eta diagnostikoa: Bide hartzailearen eta baliabidearen azterketa eta diagnostikoa egiteko proposamenaren koherentzia balioetsiko da. Horren barruan, aipatzen diren erreferentziako iturriak, proposatzen den lan-programa, baliabidea aztertzeko metodologia, bide hartzailea aztertzeko metodologia,



ingurumen faktoreen identifikazioa eta beste batzuk hartuko dira kontuan (**balioespena: 0 eta 25 puntu artean**).

2) Proposamenaren ingurumen-integrazioa (**balioespena: 0 eta 25 puntu artean**). Honako alderdi hauek balioetsiko dira:

- a. Ingurumen aldetik Energia Eolikoaren LAP integrazio egokia bermatzeko metodologia, zirriborratzen hasten denetik.
- b. Inpaktuak balioesteko metodologia, eta eragiten duten eskalaren zehaztapena.
- c. IITen edukiak eta Energia Eolikoaren LAPen integrazteko proposamena.
- d. Ingurumen eta paisaiari eragin diezaiekeen inpaktuaren maila zehazteko metodologia.
- e. Ingurumen aldetik Energia Eolikoaren LAPetik eratorriko diren egitasmoak ebaluatzeko metodologia.

3) Proposamen teknikoak: Indarrean dagoen lurralde antolamenduan behar bezala integratuta egoteaz gain, lurralde eredu koherentea zertzeari begira, proposatuko den metodologia balioetsiko da. Horrekin batera, EAEko potentzial eolikoa nola garatu behar den finkatzeko proposamena aintzat hartuko da (**balioespena: 0 eta 25 puntu artean**).



III.- GUTUN-AZALAK IREKITZEA, ESKAINTZAK KALIFIKATZEA ETA EBALUATZEA

19. A GUTUN-AZALA (“GAITASUNA ETA KAUDIMENA”) IREKITZEA ETA KALIFIKATZEA

Behin proposamenak aurkezteko epea amaiturik, Erakunde Kontratatzaileak lehenbizi eta saio pribatuan, aztertuko eta kalifikatuko ditu denbora eta modu egokian haien eskaintza egin duten lizitatzaille guztiek “A” gutun-azalean (agiri orokorra, gaitasuna eta kaudimena) aurkeztu dituzten agiriak.

Hautematen bada konpon daitezkeen akatsak edo ahazteak daudela agiri aurkeztuetan, enpresa erasanei gertakari aipatuaren berri emango zaie posta arruntez edo ofizioz ala posta elektronikoz edo faxez. Enpresek gehienez hiru eguneko epea izango dute akatsak edo ahazteak zuzentzeko Erakunde Kontratatzailearen aurrean.

Aurreko klausulan aipatu konpontzea alde batera utzita, gaitasun- eta kaudimen-baldintzak egiaztatze aldera, kontratazio-mahaiak eska diezazkioke enpresari egiazttagiri edo agiri aurkeztuei buruzko azalpenak edo, bestela ere, eska diezaioke agiri osagarriak aurkez ditzala. Enpresa erasanak bost eguneko epea izango ditu azken horiek aurkezteko. Agiri osagarriak, bidenabar, ezin izango dira aurkeztu hurrengo paragrafoan aipatzen den onartze-adierazpena gauzatu ondotik.

Behin agiriak kalifikatuta eta, hala badagokio, akatsak edo ahazteak konponduta, Erakunde Kontratatzaileak proposatuko dio kontratazio-organoari agiri honetan aurreikusitakoaren arabera kaudimena frogatu duten eta lizitazioan onartuak izango diren hautagaien zerrenda. Proposamen horretan, halaber, kontratazio-mahaiak adieraziko du zer enpresa baztertu diren eta zergatik.

20. C GUTUN-AZALA (“IRITZI BIDEZ EBALUATU BEHAR DIREN IRIZPIDEAK”) IREKITZEA ETA EBALUATZEA

Behin amaiturik A gutun-azalaren irekiera eta, hala dagokionean, akatsak zuzenduta, Erakunde Kontratatzailea saio publikoan bilduko da, ezarriko den egun eta orduan, honako zeregin hauek bideratzeko:

- a) Lizitatzaillei onartuko diren proposamenen berri emango zaie eta, hala dagokionean, zein baztertu diren eta baztertzeko zioak azalduko zaizkie. Komunikazio horretaz gain, onartuko ez diren enpresen zerrenda Erakunde Kontratatzailearen kontratatzailearen profilean argitaratuko da, eta edozein bidez jakinaraziko zaie onartuko ez diren enpresei.
- b) C gutun-azalak (iritzi bidez ebaluatu behar diren irizpideak) ireki eta irakurtzeari ekingo zaio, Erakunde Kontratatzaileak irekiera ekitaldira lizitatzailleak edo beren legezko ordezkariak gonbidatuko ditu, dagozkien gutun-azalaren inolako aldaketarik ez dela izan egiaztatzeko.

Aipatutako ekitaldia edo saioa amatutakoan, Erakunde Kontratatzaileak C gutun-azalak (iritzi bidez ebaluatu behar diren irizpideak) organo tekniko espezializatu bati bidali ahal izango dizkio, gutun-azal horietan dagoen dokumentazioa aztertzeko eta balioesteko, eta azken hori arduratuko da ebaluazioa egiteaz.

Goraxeago adierazitako organoak jaso izana eduki ondoren, aipatutako ebaluazioa egiten hasiko da, Erakunde Kontratatzaileak horretarako ezarriko duen epean. Epe horretan aztertuko duen dokumentazioa eta ebaluazio txostena bidaliko dit. Horrekin batera, aparteko orri batean, jasotako gutun-azalen zerrenda eta enpresa bakoitzak aurkeztutako dokumentazioa bidaliko ditu.

Enpresa lizitatzaillearen eskura egongo ebaluazioaren emaitza, eta kontsultatzeko aukera izango dute. Horretaz gain, baliteke argitaratzea, Erakunde Kontratatzaileak hala erabakitzen badu, iragarki-oholean iragarkiak jarritz, edo sistema elektronikoen bidez (kontratatzailearen profilararen edo prozeduran egoki diren beste bide batzuen bidez). Edonola ere, aipatu emaitza publikoki irakurriko da eskaintza ekonomikoak jendaurrean irekitzeko ekitaldian.



21. B GUTUN-AZALA ("FORMULA BIDEZ EBALUATU AHAL DIREN IRIZPIDEAK") IREKITZEA ETA EBALUATZEA

Behin amaiturik C gutun-azalen irekiera, Erakunde Kontratatzailea saio publikoan bilduko da, ezarriko den egun eta orduan, honako zeregin hauek bideratzeko:

- a) Lizitatzaleei C gutun-azalaren balioespenari buruzko emaitzaren berri emango zaie eta, hala dagokionean, gutxieneko eskakizunak edo zehaztapen teknikoak ez betetzeagatik baztertu diren eskaintzen berri ere emango zaie.
- b) B gutun-azalak (formula bidez ebaluatu ahal diren irizpideak) ireki eta irakurtzeari ekingo zaio, Erakunde Kontratatzaileak irekiera ekitaldira lizitatzaleak edo beren legezko ordezkariak gonbidatuko ditu, dagozkien gutun-azaletan inolako aldaketarik ez dela izan egiaztatzeko.

Horren guztiaren akta egingo da, eta bertaratuko diren zerrenda jasoko da.

Horren ostean, C gutun-azalean (iritzi bidez ebaluatu behar diren irizpideak) aurkeztuko den dokumentazioaren ebaluazioa eta irekiera adieraziko da hitzez edo ahoz.

Jarraian, B gutun-azala (formula bidez ebaluatu ahal diren irizpideak) irekiko da, eta gutun-azal horretan aurkeztuko diren eskaintzak irakurriko dira.

22. ESKAINTZAK EZ ONARTZEA

Ez dira onartuko ondoko ezaugarri hauek dituzten eskaintzak:

- a) Kontraesanak, hutsuneak, akatsak edo zirriborroak dituzten eta eskaintza kontuan hartzeko EEEK funtsezkotzat jotzen dituen zehaztasunak argi jakitea galarazten duten eskaintzak.
- b) Aztertu eta onartu diren agiriekin bat ez datozenak.
- c) Lizitazioko gehienezko aurrekontua gainditzen dutenak.
- d) Baldintza tekniko berezien agiriko IV. eranskinean ezarritako eskaintza ekonomikoaren ereduaz oso bestelakoak direnak.
- e) Eskaintzaren zenbatekoan akats nabarmena dakartenak.
- f) Lizitatzaleak onartzen badu akats edo funsgabetasunen bat gertatu eta proposamena bideragarria ez dela.
- g) Gutun-azal batean beste gutun-azal bati dagokion dokumentazioa sartzea.
- h) Agiri honetan ezarritako baldintzak ez betetzea edo zehaztapen teknikoen txostenean ezarritakoak ez betetzea; baita B eta C gutun-azaletan egon behar den dokumentazioa ez izatea.
- i) Aplikagarria den araudiari lotutako beste edozein ez betetzea.

23. BEHIN-BEHINEKO ESLEIPEN-PROPOSAMENA

23.1. Behin B gutun-azala irekitakoan, Erakunde Kontratatzaileak behin-behineko esleipen-proposamena egingo du, eta kontratazio-organoari haren berri emango zaio. Aldez aurretik, Erakunde Kontratatzaileak B eta C gutun-azalei dagokien dokumentazioa kontratazioa sustatzen duen erakundeari edo organoari bidali ahalko dio, eta azken horrek, egokitzat jotzen duen zerbitzu teknikoen bidez, eskaintzen inguruko txosten tekniko osoa egingo du; betiere, agiri honetan azaltzen diren baldintza guztiak aintzat hartuz eta beste gutun-azalei buruzko ebaluazioak kontuan hartuz.

Halaber, kontratua esleitzeari begira, Erakunde Kontratatzaileak behar beste txosten eska dezake. Horren ostean, Erakunde Kontratatzaileak esleitzeko proposamena egingo du, eskaintzak balioesteko irizpideei jarraiki eta jarraian aipatzen den lagiri honetako 25.2 klausulan jasotako lehentasunak gogoan harturik.

23.2. Esleitze-lehentasunak Negoziazioaren ondorioz gertatu diren baldintzei so, bi proposamen edo gehiago onuraragarrinetan berdinduta badaude eta "A" gutun-azalean aurkeztu badituzte 14.2.13 klausulan aurreikusitako egiaztagiria, hauek izango dira esleitzean lehentasuna izango duten enpresak:



- a) Gaitasun teknikoa egiaztatzeko unean, langileen artean 100eko 33 edo gehiagoko minusbaliotasuna duten langileen ehunekorik handiena duen enpresa, betiere, ehuneko aipatua baldin bada enpresako langileen 100eko 2tik gorakoa.
- b) Lan elkartuko kooperatibak eta bigarren mailako edo maila txikiagoko kooperatibak.
- c) Pertsona baztertuak laneratzearen eta sustatzearen alde lan egiten duen enpresa, beti ere, enpresak konpromisoa hartu badu lanpostuen gutxienez ehuneko 30a betetzeko jarraian aipatuko ditugun taldeetako pertsonekin, zeinen egoera egiaztatu beharko duten gizarte-zerbitzu publiko eskumendunek. Hauek dira taldeak:
- Txertaketako errenta minimoak, haren antzeko izaerako edo izaera bereko sariak jasotzen dituzten pertsonak, betiere, gogoan harturik autonomia-erkidegoetan izen desberdina izan dezaketela.
 - Aurreko paragrafoan aipatu sariak jaso ezin ditzaketen pertsonak, egoitza- edo erroldatze-epe eskatua bete ez izanagatik, edo sariaren unitate jasotzailea osatzeko epea bete ez izanagatik, edo legez ezarritako jasotze-epe maximoa agortu izanagatik.
 - Hamazortzi urtetik gorako eta hogeita hamar urtetik beherako gazteak, adingabeak babesteko erakundeetatik datozenak.
 - Droga-menpekotasun edo alkoholismo arazoak eduki eta errehabilitazio- ala gizarteratze-prozesuetan sarturik dauden pertsonak.
 - Espetxeratuak –zeinen espetxe-egoerak aukera ematen dien lanean aritzeko– baldintzapean askatuak eta preso ohiak.
 - Pertsona minusbaliatuak.
- d) Bidezko Merkataritza Elkartetzat hartutako enpresak edo erakundeak.

Lehentasunak aplikatzeko orduan, lehenetsiko da aurreko ezaugarrietatik bat baino gehiago biltzen dituen enpresaren proposamena. Aldi baterako enpresa-elkarteei dagokienez, lehentasunak zenbatetsiko dira lizitatzaile bakoitzak enpresa-elkartean duen ehunekoaren arabera.

Irizpide horiek guztiak aplikatuta ere proposamenen arteko berdinketa hautsi ez bada edo, aurreko paragrafoan aipatutakoarekin bat etorri, enpresa bat berak ere ez badu esleitze-lehentasunik, kontratua esleituko zaio –betiere, esleitze-irizpide ugari badaude– guztietan pisu gehien duen irizpidean puntuaziorik handiena jaso duen proposamenari. Irizpide hori aplikatuta ere berdinketa hausten ez bada, irizpide bakoitzari eman zaion garrantziaren ordenari erreparatuko zaio. Aitzitik, prezioa baldin bada eskaintzak balioesteko irizpide bakarra, berdinketa zozketa bidez hautsiko da.

23.3. Argibideak Esleitzeko proposamena egin aurretik, Erakunde Kontratatzaileak eska diezaieke enpresei euren argibideak azaltzeko idatziz, eskaintzei buruzko atalen bat argitze aldera. Nolanahi ere, argibide prozesu horretan, lizitatzaileak eskaintzan azaldutako kontzeptuak aldatzea ez da onartuko. Beraz, hasieran proposatutako irtenbidea aztertzeko informazioa baino ez da kontuan hartuko.

23.4. Kontratazio-organoari aurkeztea Erakunde Kontratatzaileak kontratazio-organoari helaraziko dio proposamen aurkeztuen zerrenda, zeina ordenan egongo den, eskaintzak balioesteko irizpideen arabera punturik gehien jaso dituzten proposamenetatik hasi eta puntu gutxien jaso dituztenak. Zerrendan zehaztuko da, baita ere, onartuak edo baztertuak izan diren eskaintzak, baita aktak, txostenak, kontratazio-mahaiaren behin-behineko esleipen-proposamena eta kontratazio-mahaiak egoki deritzon oharrak ere.

23.5. Ondorioak Behin-behineko esleitze-proposamenak ez du eskubiderik sortzen EEeri proposaturiko lizitatzailearen alde. Nolanahi ere, kontratazio-organoak kontratua esleitzen badu proposamen eginaren arabera, azken horrek bere erabakiaren arrazoiak eman beharko ditu.

IV.- BEHIN-BEHINEKO ETA BEHIN BETIKO ESLEIPENA

24. BEHIN-BEHINEKO ESLEIPENA

24.1 Arau orokorrak

24.1.1. Esleipen-proposamenarekin bat etortzea: Oro har, behin-behineko esleipena bat etorriko da kontratazio-mahaiak egin proposamenarekin. Horrela ez bada, kontratazio-organoak proposamena bazter uzteko erabakia hartu izanaren arrazoiak eman beharko ditu.



24.1.2. Ohiz kanpoko edo neurritz kanpoko balioak: Kontratazio-mahaiak proposatu eskaintzak ohiz kanpoko edo neurritz kanpoko balioak baditu eta kontratazio-organoak –enpresaren justifikazioa eta txosten eskatuak azterturik– uste badu eskaintza ezin daitekeela bete ohiz kanpoko eta neurritz kanpoko balioak izateagatik, kontratazio-organoak behin-behinekoz esleituko dio kontratua ekonomikoki onuragarrien diren proposamenetan hurrengoari –sailkatze-hurrenkerari jarraiki– betiere, EEEk eskaintza egoki bete dezakeela uste bada eta ohiz kanpoko edo neurritz kanpoko ez bada.

Proposamena ausartegitzat joko da proposamen onartuen batez besteko aritmetikoaren azpitik ehuneko hamabost (15) puntutara badago.

Proposamena ohiz kanpokotzat edo neurritz kanpokotzat jo aurretik informazioa eskatuko zaie proposamen aipatua aurkeztu dutenei, dagokion zerbitzuaren aholku teknikoari aholkua eskatuko zaio, kontratazio-mahaiak txostena aurkeztu beharko du eta lizitazioan enpresa lotuek eskaintza desberdinak aurkeztu badituzte, kontuan hartuko da SPKLeko 129.4 artikuluko bigarren paragrafoan eta APKLAOko 86.1 artikuluan xedatutakoa.

Erabakia justifikatu beharra dago Europako Ekonomia Erkidegoko kontratu publikoetarako Aholku Lantaldearen aurrean.

24.1.3. Edukia, jakinarazpena eta argitaratzea: Behin-behineko esleipenak arrazoitua behar du. Ondorio horietarako, arrazoitzeko beharra betetzat joko da kontratua esleitu zaion eskaintzari dagokion puntuazioa adierazten denean. Behin-behineko esleipen-hitzarmenaren berri emango zaie lizitatzailerak onartu guztiei, eta argitaratuko da EEEren kontratatzailearen profilean.

24.1.4. Informazioa eskatzea: Hala eskatzen duten enpresei, –eskabidea jaso eta bost (5) astegun igaro aurretik– informazioa emango zaie haien proposamena baztertu izanaren arrazoiei buruz. Azalduko zaie, baita ere, proposamen esleipendunaren zer ezaugarri izan diren erabakigarri kontratua hari esleitzeko.

24.1.5. Epea ez betetzea: 24.2 eta 24.3 ataletan adierazitako epean kontratua behin-behinekoz esleitu ez bada, enpresa lizitatzailerak proposamena kentzeko eskubidea izango dute.

24.1.6. Ez esleitzea: Kontratazio organoak ezin izango du esleitu gabe utzi lizitazio bat, baldin eta agirian azaltzen diren irizpideen arabera onargarria den eskaintzaren bar badago.

24.1.7. EEEk esleitzeari uko egitea eta prozedura bertan behera uztea: Kontratua behin-behinekoz esleitu aurretik, EEEk edo kontratazio-organoak uko egin diezaiotke kontratua esleitzeari –espedientean egoki justifikaturiko interes publikoko arrazoiengatik– edo esleipen-prozedura bertan behera utz dezake –kontratua prestatzeko arauak edo esleipen-prozedura arautzen duten arauak hautsi badira ezin konponduzko moduan–.

Erakunde Kontratatzailerak kontratua esleitzen ez badu, edo uko egiten dio esleitzeari, lizitatzailerak bakoitzari 150 euroko kalte-ordaina ordainduko dio.

24.2, Eskaintzak balioesteko prezioa irizpide bakarra den kasuetan.

Kontratazio-organoak hamabost (15) eguneko gehieneko epean, proposamenen irekitze publikoaren biharamunetik kontatzen hasita, aurkeztuko diren proposamenak sailkatuko ditu, behetik gorako puntuazioaren arabera, eta behin-behineko esleipena egingo du ebazpen arrazoituaz, kontratazio-mahaiak egindako proposamenaren alde, agiri honetako 24.1.2 klausulan adierazten den kasuan izan ezik (ohiz kanpoko edo neurritz kanpoko balioak). Aipatutako epea hamabost (15) egun baliodun luzatuko da, baldin eta ohiz kanpoko edo neurritz kanpoko balioak dituen proposamenaren adierazpenerako izapideak egin behar badira.

Hasieran, ohiz kanpoko edo neurritz kanpoko balioak dituen eskaintza hartzeko, 24.1.2 klausulan adierazten diren kasuak hartuko dira aintzat.



24.3 Eskaintza balioesteko irizpide-pluraltasuna ezarrita dagoen kasuetan.

Kontratazio-organoak bi (2) hilabeteko gehieneko epean, proposamenen irekitze publikoaren biharamunetik kontaktzen hasita, aurkeztuko diren proposamenak sailkatuko ditu, behetik gorako puntuazioaren arabera, eta eskaintzak balioesteko irizpideak aintzat hartuta. Gainera, proposamen egokienari kontratua behin-behinean esleitzeko ahalmena izango du; betiere balioesteko irizpideei eta horiei agiri honetan ematen zaien puntuazioari erreparatuz, edo lehiaketa esleitu gabe uztea; azken kasu honetan ere arrazoitu beharko du erabakia, balioesteko irizpideak kontuan hartuta.

Aipatutako gehieneko epea hamabost egun balioudun (15) luzatuko da, baldin eta balio ezohikoak edo gehiegizkoak dituzten proposamenen adierazpena bideratzeko irizpideak egin behar badira.

25. BEHIN-BEHINEKO ESLEIPENDUNAK AGIRIAK AURKEZTEA

25.1. Hamabost eguneko epean –kontratatuzailearen profilean behin-behineko esleipena argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita– behin-behineko esleipendun gertatu den enpresak ondoko hauek egiaztatzekeo agiriak aurkeztu beharko ditu:

- a) Zerga-betebeharrak nahiz Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak beteta izatea.
- b) Behin betiko bermea eta osagarria eratu izana, agirian hala eskatzen baldin bada.
- c) Iragarki ofizialen zenbatekoa ordaindu izana.
- d) Egiaztatzea, hala badagokio, kontratuaren parte edo zati jakin batzuetarako eskatzen den gaitasun edo baimen profesionala duela eta, horrenbestez, azpikontratazio-konpromisoa aurkeztu duen enpresa formalizatu beharko da eskritura publiko bidez.
- e) Egiaztatzea, hala badagokio, enpresa espezializatuei dagokien klasifikazioa eskatu baldin bazaie, baimen profesionalen baten jabe izanik, eta, horrenbestez, azpikontratazio-konpromisoa aurkeztu duen enpresa formalizatu beharko da eskritura publiko bidez edo dokumentu pribatuan.
- f) Enpresaren kontratatzekeo gaitasunaren beste egiaztagiriri batzuk, edo kontratazio-organoak eskatzen dizkion eta enpresak kontratua gauzatzeko erabiliko dituela hitz eman duen baliabideak egiazki dituela erakusten duten egiaztagiririak.
- g) Kasuan kasu, eskatzen diren aseguru espezifikoen polizak edo ziurtapenak, agiri honetako 32.6 klausulan adierazten dena betez.
- h) I. eranskinean azaldutako bitarteko material eta pertsonalak atxikitzekeo konpromisoan sartu diren bitartekoen benetako jabetza.
- i) Esleipenduna aldi baterako enpresa-elkartea izango balitz, aldi baterako elkartea eratzeko eskritura publikoa aurkeztu beharko du, eta haren iraupena eta kontratuaren amaierarena bera izango da.

25.2. Zerga-betebeharrak beteta izatea egiaztatzekeo, lizitatuzaileek ondoko dokumentu hauek aurkeztu behar dituzte:

- a) Jarduera Ekonomikoen Zergaren azken ordainagiria edo, enpresa sortu berria bada eta oraindik ez badu Jarduera Ekonomikoen Zerga ordaindu beharrik izan, zerga horretan alta eman izanaren agiria. Edonola ere, alta ematearen agiria aurkeztu beharko da ordainagiri emana ez bada jaso jardueraren epigrafean. Agiri horietan jaso beharko da kontratuko xedeari dagokion epigrafea, zeinak enpresa gaitzen duen diharduen lurralde-eremuan aritzeko. Horrez gainera, aurkeztu beharko da enpresaren erantzukizunezko adierazpena, erakusten duena enpresak ez duela baja hartu Jarduera Ekonomikoen Zergaren matrikulan. Aurkezten badira Euskadiko Kontratisten Erregistro Ofizialeko egiaztagiria eta enpresaren erantzukizun-adierazpena –egiaztatzen duena egiaztagirian jasotako inguruabarrak aldatu ez direla– ez dira aurkeztu beharko zergan bajaran eman ez izanaren agiria izan ezik gainerako beste guztiak.
- b) Zerga Administrazioako organo eskumendunak emandako egiaztagiriri positiboa, APKLAOko 15.2 artikuluan jasotako baldintza formalak biltzen dituena. Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistroan izena emanda egoteari buruzko indarreko egiaztagiria edukitzea egiaztatzen edo egiaztatu dutenek ez dute egiaztagiriri hori aurkeztu beharrik, betiere, indarraldi aipatuak dirauen bitartean eta aldatu ez badira dagokion egiaztagirian jasotako inguruabarrak. Enpresak, bidenabar, bi egitate horiek berariaz adierazi beharko ditu kontratua formalizatzeko agirian.



APKLAOko 13. artikuluan jaso diren zerga-betebeharrei buruzko aitorten edo agiri guztiak ala horietako batzuk aurkeztera derrigorturik ez dagoen enpresak baldintza hori egiaztatu beharko du erantzukizun-adierazpenaren bidez.

25.3. Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak bete izana egiaztatuko da agintaritza administratibo eskumendunak igorritako egiaztagiri positiboaren bidez, zeinak beteko dituen APKLAOko 15.2 artikuluan jasotako formazko baldintzak. Salbuespenen bat kontuan hartu behar bada, hura egiaztatu beharko da erantzukizun-adierazpenaren bidez. Enpresak prozeduran barrena egiaztatu badu Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistroan izena emanda dagoela, ez du egiaztagiri hori aurkeztu beharrik, betiere, indarraldi aipatuak irauten duen bitartean eta aldatu ez badira dagokion egiaztagirian jasotako inguruabarrak. Enpresak, bidenabar, bi egitate horiek berariaz adierazi beharko ditu kontratua formalizatzekeo agirian.

25.4. Behin betiko bermea eta osagarria era eta egiaztatu daiteke agiri honetako III. eranskinean adierazi bezala eta bermearen zenbatekoa izango da kontratuaren esleipen-zenbatekoaren %5aren bestekoa (BEZ kanpo).

25.5. Hala badagokio, iragarki ofizialen zenbatekoa ordaindu izanaren egiaztagiria. Kontuan hartu behar da, gainera, esleipendunaren kontura izango direla Estatuko Aldizkari Ofizialean eta Euskal Herriko Agintaritza Aldizkarian jarriko diren kontratuen iragarkiak, behin argitaratuko direnak.

26. KONTRATUA BEHIN BETIKOZ ESLEITZEA

Behin-behineko esleipendunak agiriak aurkezteko duen hamabost (15) asteguneko epea amaitu eta hamar (10) astegun igaro aurretik, kontratazio-organoak behin betikotu egingo du behin-behineko esleipena, betiere, esleipendunak aurkeztu baditu agiri eskatuak. Behin betiko esleipenak arrazoiturik egon behar du. Ondorio horietarako, arrazoiak emateko betebeharra betetzat joko da kontratua esleitu zaion enpresaren eskaintzari emandako puntuazioa adierazten denean.

Kontratazio-organoaren behin betiko esleipenaren bidez gauzatuko da kontratua.

Horretarako beharrezkoak diren baldintzak bete ez eta ez bada egoki behin-behineko esleipendun gertatu den lizitatzaila behin betiko lizitatzaille izendatzea, deialdi berria egin aurretik kontratazio-organoak behin-behineko esleipendun berri izendatu dezake, eskaintzen ordenari jarraiki, haren ondoz ondotik geratu diren behin-behineko lizitatzaila edo lizitatzailleak, betiere, hori egitea posible bada eta esleipendun berria ados badago. Hala bada, esleipendun berriak hamar (10) asteguneko epea izango du behin-behineko esleipendunari eskatu zaizkion agiriak aurkezteko.

27. BEHIN BETIKO ESLEIPENARI BURUZKO JAKINARAZPENA ETA ARGITARATZEA

27.1. Behin betiko esleipena jakinaraziko da SPKLko 137. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz. Interesdunek hala eskatzen badute, –eskabidea jaso eta hamabost egun (15) igaro aurretik– informazioa emango zaie haien hautagaitza edo proposamena baztertu izanaren arrazoiei buruz. Azalduko zaie, baita ere, proposamen esleipendunaren zer ezaugarri izan diren erabakigarri kontratua hari esleitzeko.

Kontratazio-organoak aukera du esleipenari buruzko zenbait datu jakitera ez emateko; betiere, (espedientean egoki justifikatuz) uste baldin badu informazio aipatua zabaltzeak arauen bat aplikatzea eragotz dezakeela, informazio aipatua interes publikoaren kontrakoa izan daitekeela edo informazio aipatuak kalte egin diezaiokeela enpresa publiko nahiz pribatuen merkataritzako legezko interesei ala enpresen arteko lehiakortasun leialari.

27.2. Behin betiko esleipena kontratatzailearen profilean argitaratuko da, eta SPKLeko 138.2 artikuluan ezarritako zenbatekoa gaindituz gero, EBEOen ere.



V.- KONTRATUA FORMALIZATZEA

28. EPEA, AURRETIAZKO DOKUMENTAZIOA ETA EZ FORMALIZATZEAREN ONDORIOAK

Enpresa esleipendunak kontratua izenpetu beharko du, behin betiko esleipena jakinarazi eta, hurrengo egunetik zenbatzen hasita, hamar (10) egun igaro aurretik.

Espedienteak premiazkoa dela adierazpena jasotzen badin badu, behin betiko bermea eratu ondoren, hala eskatzen denean, kontratua gauzatzen hasi ahal izango da, sinatu aurretik.

Kontratatistak ezin badu –hari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik– kontratua epe zehaztuaren barruan formalizatu, EEEK kontratu aipatua suntsiaraztea erabaki dezake, betiere, enpresa interesatuari entzun ondotik. Kasu horretan, berme eratuak konfiskatuko du eta, edozelan ere, EEEK eskubidea izango du eragin zaizkion eta bermeak estaltzen ez dituen kalte eta galerengatik kalte-ordaina jasotzeko.

Behin kontratua suntsituz gero (kontratazioa arautze normalizatuaren arabera egiten ez bada), SPKLeko 135.5 artikuluan ezarritakoa betez, kontratazio-organoak beste behin-behineko esleipen bat egin dezake, enpresa haren atzetik geratu den edo diren enpresekin, euren eskaintzak sailkatu diren hurrenkeraren arabera, baldin eta hura gauzatzea bideragarria izateaz gain, enpresa esleipendun berriak onartzen badu. Horrela bada, hamar (10) egun balioduneko epea emango zaio behin-behineko esleipendun berriari dokumentazioa aurkezteko.

VI.- KONTRATUA GAUZATZEA

29. KONTRATUA ARDURAZ GAUZATZEKO IKUSKAPENA ETA ZUZENDARITZA

Kontratazio-organoak kontratuaz arduratuko den pertsona aukeratu ahal izango du, kontratatutako zerbitzuak behar bezala gauzatzen direla ikuskatu eta zuzentzeko. Horretarako, beharrezkotzat joko dituen erabakiak hartzearekin batera, aginduak emango ditu; betiere, kontratuan ezarritako baldintzak betez eta kontratazio-organoak emango dion eskuduntzen esparrua aintzat hartuz.

Kontratuaren arduraduna pertsona fisikoa edo juridikoa izan daiteke, titulazio eta prestakuntza egokiak nahiz nahikoak dituen eta erakunde kontratatzailearekin lotura duena edo ez, eta kontratuaren xedea osatzen duten zerbitzuak gauzatzeke laguntzaileak izan ditzake. Laguntzaile horiek dagozkien titulazio profesionalen eta ezagutza espezifikoen arabera arituko dira lanean. Horiek guztiek azterlan edo kontratuaren zuzendaritzaren menpe lan egingo dute.

Kontratuaren pertsona arduradunak eta haren laguntzaileak askatasuna izango dute zerbitzu kontratatua gauzatzen den lekuetara sartzeko, betiere, kontratatistak izendatzen duen pertsonak lagunduta.

Kontratazio-organoak izendatzea idatziz jakinaraziko dio enpresa kontratatari. Kontratua gauzatu bitartean izendatzean aldaketarik badago, aldaketa horiek ere idatziz jakinaraziko zaizkio enpresa kontratatari.

30. LANEN HASIERA

Era orientagarrian eta lanak gauzatzeke epearen hasiera moduan, agiri honetako 10.1 klausularen bigarren paragrafoan adierazitako hartuko da kontuan.

31. EPEAK BETETZEA ETA ATZERAPENA GAUZATZEAN

Kontratista derrigortuta dago kontratua ezarritako epean gauzatzera; eta hala erabaki bada, baita zatikako epeetan ere gauzatzera.

Azken epea edo epeak amaitu eta enpresa kontratatista berandutu egin bada, berari egotz dakizkiokeen zergatiak direla eta, EEEK kontratua bertan behera utz dezake edo zigor ekonomikoak ezar ditzake (agiri



honetan aurreikusten den bezala), Zigorren zenbatekoak ez du kanpo uzten EEEK kontratistaren berandutzeagatik sortutako kalte-galerak direla kausa eska dezakeen kalte-ordaina.

32. KONTRATUA GAUZATZEAREKIN LOTURA DUTEN BESTE KLAUSULA BATZUK

32.1. Arriskua eta zoria: Kontratua kontratistaren arrisku eta zorira gauzatuko da.

32.2. Kontratu-agiriak eta argibideak betetzeko beharra: Kontratua gauzatzeko zorrotasun handiz beteko dira agiria, proiektua, lan-programa eta kontratu-izaera duten gainerako agiri guztiak.

Nahiz eta kontratistak ez ezagutu kontratuko agiri erantsi itunduak, argibideak, agiriak edo EEEK onartutako zeinahi motatako arauak, horiek guztiak betetzeko betebeharra izango du.

32.3. Lan-programa: Kontratistak lan-programa aurkeztu beharko du, zehaztaperen teknikoaren txostenean hala eskatzen badu.

32.4. Gauzatzeko behar diren baimenak eskuratzea: Agiri honetan arautzen den zerbitzua emateko, enpresa kontratistari dagokio baimen eta lizentziak lortzea, publikoak zein pribatuak; Erakunde Kontratatzaileak bere gain hartu nahi izango dituen baimen eta lizentziak izan ezik.

32.5. Gauzatzeko behar diren gastuak: Enpresa kontratistaren kontura joango dira honako zeregin hauek eragingo dituzten gastuak: erakunde publiko edo pribatuetatik eskuratu behar diren lizentzia, dokumentuak edo edozein informazioa lortzeagatik; indarrean dagoen legeriak eskatzen duen eran eta diru-kantitatean, aplikagarriak diren zerga, tasa, eskubide eta gainerako dokumentuak eskuratzeagatik. Gastu horien salbuespena izango dira agiri honetako 8. Klausulan azaltzen direnak.

32.6. Lanen, kalteen eta galerengatiko erantzukizuna eta aseguruak: Enpresa kontratatzailea ondoko hauen erantzule izango da: garatzen dituen lanen eta zerbitzuen kalitate teknikoarena; obra eta zerbitzu gauzatuena; eta proiektuak ezegoki idazteagatik gertatzen diren hutsegiteen, akatsen, metodo ezegokien edo ondorio okerren eraginez nahiz kontratua gauzatzearen bidez EEEK edo hirugarrenek pairatu behar dituzten ondorioena. Kontratua modu partekatuan gauzatzen bada profesional edo enpresa bat baino gehiagorekin –aldi baterako enpresa-elkartearen bidez– guztiek erantzungo dute elkartasunez.

Enpresa kontratistak ordaindu behar ditu kontratua gauzatzeko egin behar diren eragiketen eraginez hirugarrenei sortzen zaizkien kalte eta galera guztiak.

Enpresa esleipendunak derrigorrezko aseguruak izan beharko ditu eta, horrez gainera, ondoko hauek kontratatu eta mantenduko ditu kontratua indarrean egongo den bitartean:

- Erantzukizun zibil profesionalaren aseguruak. Aseguru honek Erakunde Kontratatzailearentzat diharduten profesionalak (abokatu, ingeniari, ingeniari teknikoek...) beste bati eragin ahal dizkioten kalte edo zauriak, pertsonalak edo materialak, estaltzeko bermea eman behar du. Aseguru hori ospe handia duen aseguru enpresa batekin sinatu behar da, eta gutxieneko kalte-ordaina ez da 600.000 euro baino txikiagoa izango.

32.7. Baliabide material eta pertsonalak eta zenbait lan-harremanetan ordezkatzeari: Zerbitzu edo prestazio kontratatua ezarrita epeetan gauzatzeko, kontratistak derrigor jarri eta mantendu beharko ditu beharrezkoak diren ekipamendua, bitarteko osagarriak eta, bereziki, I. eranskinean aipatu diren bitartekoak, kontratuan hitzartutako epeetan gauzatzeari zuzena izan dadin. Horrez gain, bitarteko horiek guztiek izan beharko dute kontratua gauzatzeko pertsona arduradunen zerrendan jaso den dedikazioa.

Enpresako langileak enpresa kontratistaren mende egongo dira soilik, eta enpresa kontratistak soilik izango ditu enplegatzaile den aldetik dagozkion eskubideak eta betebeharrak.

EEEK hala eskatzen badu, enpresa kontratistak kontratua gauzatzen ariren diren pertsonen izenak, kategoria profesionala eta kualifikazio teknikoa.



Era berean, enpresa kontratistak ezin izango ditu eskaintzan ezarritako eskumeneko langileak ordezkatu, baldin eta EEEK horretarako baimen zehatzik eman ez badu.

Legeak hala eskatzen denean, kasuan kasu, kontratistak ordezkatu beharko du lan-harremanetan.

32.8. Kontratistaren betebeharrak lan, gizarte-segurantza, eta laneko segurtasuna nahiz osasunari buruzko auzietan: Enpresa kontratistak bete beharko ditu lan-arloan indarrean diren xedapenak, bai eta gizarte-segurantzakoak eta laneko segurtasunari nahiz osasunari buruzkoak ere. Bereziki, hauexek beteko ditu:

- a) Eman beharreko zerbitzuak lan ituna edo lan ordenantza bete behar badu, kontratista behartuta dago lan ordenantza eta lan itunari lotutako araudiak.
- b) Aplikagarriak baldin badira, enpresa kontratistak laneko segurtasun eta higienari lotutako neurri guztiak hartuko ditu, langileen bizia eta osasuna arriskuan jar ditzaketen egoerak zorrotasun handiz prebenituz.
- c) Halaber, indarrean dagoen legeria betez, lan arriskuen prebentzioaren inguruko araudiak beteko ditu, eta kontratatutako jardueri ekin aurretik, araudiak betetzen dituela egiaztatu beharko du.
- d) Enpresa kontratistak azpikontratatzeko badu kontratuaren gauzatzearen zati bat, azpikontratatuari eskatu beharko dizkie aurreko betebeharren egiaztagiria eta EEEri eman.
- e) Lanean dabilzala langileei edozer eratako istripu edo kaltea gertatuz gero, esleipendunak indarrean dauden arauak xedatutakoa beteko du bere ardurapean; EEEK, aldiz, ez du horretaz erantzun beharrik.

33. GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZIAK

33.1. Gauzatzeoko hizkuntza baldintzak

Azterlanak, txostenak, proiektuak eta kontratu honi lotutako gainerako lanak EAEko hizkuntza ofizial bietan egingo dira. Horren barruan sartzen dira software guztien testuzko eta entzunezko interfazeak. Zehaztutako teknikoek txostenek besterik esaten ez baldin bada, eta kontratuaren ezaugarri bereziak direla eta, kontratua gauzatzeari begira, beste hizkuntza bat edo batzuk erabili beharra ez badago.

Kontratuak herritarrei zerbitzuak ematea eskatzen duenean, kontratua gauzatzeko ardura duen enpresaren eta zerbitzuaren erabiltzailearen arteko ahozko komunikazioetan eta komunikazio idatzietan erabiltzaileak aukeratutako hizkuntza erabiliko da. Berariaz inolako aukerarik egiten ez bada, kontratua gauzatzeko ardura duen enpresak pertsona fisikoei eta juridikoei egiten dien era guztietako jakinarazpen eta komunikazioak hizkuntza ofizial bietan egingo dira, fakturak eta zirkulazioko bestelako agiriak barne. Hala ere, prestazioaren jasotzaileak edozein unetan erabil dezake hizkuntza aukeratzeko eskubidea eta, ondorioz, nahi duenean eskatu ahal izango du hizkuntza ofizialetako bakar bat erabiltzea.

33.2. Gizarte- eta lan-txertaketaren aldeko gauzatzeko baldintza bereziak

33.2.1. Kontratua esleitzeko irizpide izateaz gainera, kontratistak konpromisoa hartzen du zerbitzu kontratatua gauzatzeko beharrezkoak diren langile guztien –enpresa kontratistarenak eta azpikontratistarenak barne– gutxienez %20 izatea lanpostu bat lortzeko zailtasun bereziak dituzten langabetuak.

33.2.2. Hauek hartzen dira lanpostu bat lortzeko zailtasun berezia duten pertsonatzat:

- a) Oinarrizko errenta jaso eta laneratze-hitzarmena izenpetu duten pertsonak (ezaugarri horiek egiaztaturik egon behar dute dagokion oinarrizko gizarte-zerbitzuaren egiaztagiriaren bidez, zeinak erakusten duen pertsona aipatua programa aipatuaren onuradun dela).
- b) 30 urtetik gorako emakumeak –zeinentzat lan-kontratu hau lehendabizikoa den– eta bost urtez langabezian egon ondoren kontratatzen diren emakumeak (azken hori egiaztatu beharra dago lan-biziaren txostenaren bidez).
- c) Pertsona minusbaliatuak, %33ko edo hortik gorako minusbaliotasuna aintzatetsia dutenak (ezaugarri hori egiaztatu beharra dago erakunde ofizial eskumendunak igorritako minusbaliotasun-egiaztagiriaren bidez).
- d) Etxeko indarkeriaren biktimak. Etxeko indarkeriaren biktimatzat hartuko dira indarkeria fisikoaren edo psikikoa pairatu dutenak, dela ezkontidearen eskutik, dela ezkontidearen antzeko afektu-harremanetatik hari lotua egon den pertsonaren eskutik, dela bere aurrekoen, ondorengoen edo neba-arreben eskutik, betiere egintza aipatuak egiaztatu badira biktimaren aldeko zigortze-epaiaren edo babeste-aginduaren bidez edo, salbuespenez, fiskaltzaren txostenaren bidez, zeinak



adierazten duen babeste-agindua izapidetu bitartean badirela arrastoak erakusten dutenak salatzailera aipatu indarkeriaren biktima dela.

- e) Gaixotasun mentalen bat duten pertsonak (medikuaren txostenaren bidez egiaztatu beharrekoa).
- f) Guraso bakarreko familia bateko aita edo ama, betiere, hiru hilabetez gutxienez langabezian inskribaturik egon badira. Horrenbestez, guraso bakarreko aita edo ama langabetutzat hartuko dira bere kargura soldatapeko jarduerarik gauzatzen ez duen edo duten ondorengo bat edo bat baino gehiago dituen pertsona (aipatu inguruabarra egiaztatzeko aurkeztu behar dira bizikidetz-egiaztatzea, familia-liburuaren kopia, zinpeko aitortpena –zeinean adierazten duen soldatapeko jarduerarik gauzatzen ez duen edo duten ondorengo bat edo bat baino gehiago bere kargura duela edo dituela– eta dagokion Enpleguaren Zerbitzu Publiko autonomiko edo estatalak igorritako egiaztatzea, pertsona aipatua langabetu moduan erregistraturik egon den denbora-tarteei buruzkoa).
- g) Batasunetik kanpoko immigranteak, langabetu moduan erregistraturik egon direnak, gutxienez, 6 hilabetez etenik gabe (aipatu inguruabarra egiaztatzeko aurkeztu beharra dago dagokion Enpleguaren Zerbitzu Publiko autonomiko edo estatalak igorritako egiaztatzea, pertsona aipatua langabetu moduan erregistraturik egon den epealdiei buruzkoa).
- h) Langabezian luzaro egondako pertsonak, dagokion zerbitzu publikoan etenik gabe erregistraturik egon direnak lan-eskatzailera moduan, gutxienez, 12 hilabetez (aipatu inguruabarra egiaztatzeko aurkeztu beharra dago dagokion Enplegu Zerbitzu Publiko autonomiko edo estatalak igorritako egiaztatzea, erakusten dituen pertsona aipatua langabetu moduan erregistraturik egon den epealdiak).
- i) 45 urtetik gorako pertsonak, langabetu moduan erregistraturik egon direnak, gutxienez, 3 hilabetez etenik gabe (aipatu inguruabarra egiaztatzeko aurkeztu beharra dago dagokion Enpleguaren Zerbitzu Publiko autonomiko edo estatalak igorritako egiaztatzea, pertsona aipatua langabetu moduan erregistraturik egon den epealdiei buruzkoa).
- j) 16 eta 30 urte bitarteko gazteak, langabetu moduan erregistraturik egon direnak, gutxienez, 5 eta 12 hilabete bitartean gabe (aipatu inguruabarra egiaztatzeko aurkeztu beharra dago dagokion Enpleguaren Zerbitzu Publiko autonomiko edo estatalak igorritako egiaztatzea, pertsona aipatua langabetu moduan erregistraturik egon den epealdiei buruzkoa).
- k) Adingabeak babesteko erakundeetatik datozen pertsonak, betiere, pertsona horiek laneratzeko prozesuari ekiten bazaio erakundetik atera eta hamabi hilabete igaro aurretik (inguruabar hori egiaztatu beharko da dagokion erakunde-egiaztazariaren bidez).
- l) Toxikomano ohiak (alkoholiko ohiak eta drogazale ohiak). Toxikomano ohizat hartuko dira dagokion talde terapeutikoaren iritziz desintoxikazio nahiz mendekotasuna gainditzeko faseak gainditu dituzten eta etenik gabe 6 hilabete baino gehiagorik tratamenduan diren pertsonak (aipatu inguruabarra egiaztatu beharra dago dagokion Osasun Etxearen egiaztazariaren bidez).
- m) Ezein motatako lan kontraturik ez duten espetxeratuak, zeinen espetxe-erregimenak aukera ematen dien lanpostu bat izateko; eta langabetu moduan erregistraturik dauden preso ohiak, betiere, azken horiek kontratatzen badira askatu eta 12 hilabete igaro aurretik (aipatu inguruabarra egiaztatu beharra dago dagokion erakunde-egiaztazariaren bidez).
- n) Eskatzen duen eta, oinarrizko gizarte-zerbitzuen iritziz, laguntzaren edo jarduera zehatzaren beharra duena lan-munduan txertatzeko (aipatu inguruabarra egiaztatu beharra dago oinarrizko gizarte-zerbitzuen agiriaren bidez).
- o) Ekintza terroristen edo banda nahiz talde armatuetako kide diren eta herritarren bakea nahiz segurtasuna larri asaldatzea xede duten pertsonen indarkeria jasaten duten edo jasan izan duten pertsonak. Talde horren barruan sartuko dira, baita ere, xede aipatua duten talde edo bandatan formalki integraturik egon ez arren haien asmo bera duten pertsona arduradunak.

Lanean txertatzeko beharra egokitu daiteke, baldin eta kontratuaren esleipenak aurreko langileak aldatzea ekarriko balu edota kontratu berriak kontratazio berriak ekarriko ez balizkio enpresa esleipendunari.

Salbuespenezko izaera duten aurreko kasuak edo baldintzak arrazoitu edo motibatatu eta justifikatu beharko dira.

Ez bada posible izan kontratua gauzatzeko erabiliko diren langileen %20 izatea enplegua lortzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonak, ezintasun hori onartuko da enplegu-zerbitzu publikoek edo oinarrizko gizarte-zerbitzuek ezin izan badute lan-eskaintza aurkeztua ase edo, bestela ere, produkzio-



, antolakuntza-, teknika- edota ekonomia-kontuengatik. Arrazoi horiek guztiak behar bezala egiaztatu behar dira. Kasu horietan –betiere, kontratuko xede diren zerbitzuen tipologiarekin bat badator– enpresa esleipendunak azpikontratatu beharko du, gutxienez, kontratuko zenbatekoaren %5 2273/1985 Errege Dekretuan ageri den Enplegu Zentro Berezien Erregistroan erregistratutako enpresekin edo, bestela ere, abenduaren 26ko 305/2000 Dekretuak araututako Txertatze Enpresen Erregistroan erregistratutako enpresekin. Ondorio horietarako, enpresa derrigortuek eska diezaiokete Justizia, Enplegua eta Gizarte Segurantza Sailari erregistro aipatuetan izena emandako enpresen zerrenda.

33.3. Gizon eta emakumeen arteko berdintasunerako gauzatze-baldintza bereziak:

33.3.1. Kontratua gauzatzean, enpresa kontratistak edo azpikontratistek bermatuko dute gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna tratuan, lana lortzeko orduan, lanbide-sailkapenean, sustapenean, iraunkortasunean, prestakuntzan, suntsipenean, ordainketetan, kalitatean, lan-egonkortasunean, iraupenean eta lanaldiaren antolamenduan. Era beran, kontratua gauzatu bitartean enpresa kontratistak edo azpikontratistek izango dituzte kontratua gauzatzeari atxikitako pertsonen bizitza pertsonalaren, familiako bizitzaren eta laneko bizitzaren arteko bateratzea ahalbidetzeko neurriak.

33.3.2. Era berean, bermatuko da 10 langiletik gorako enpresa kontratistek edo azpikontratistek hartuko dituztela sexu-jazarpena eta kontratua gauzatzeari adskribatutako langileekin duten harremanean sexu-arrazoiengatik jazarpena prebenitzeko neurriak, esate baterako, jardunbide egokien kodeak egitea eta hedatzea, trebakuntza-jarduerak edo informazio-kanpainak egitea, edo prozedura zehatzak ezartzea jazarpenak prebenitzeko eta jazarpena jasan dutenek egin ditzaketan erreklamazio edo salaketak bideratzeko.

33.3.3. Kontratua gauzatzeko langile gehiago kontratatu behar badira eta enpresa kontratista edo azpikontratistako langileen artean desoreka baldin badago emakumeen eta gizonen artean, kontratua gauzatzeko –eta gauzatze-epe osoan barrena– emakume bat kontratatu beharko du edo, gutxienez, aldi baterako kontratua duen emakume bati kontratu mugagabea egin. Langileen artean desoreka dagoela joko da emakume baldin badira langile guztien %40 baino gutxiago.

33.4. Enpleguaren kalitatea eta oinarrizko lan-eskubideak bermatzeko gauzatze-baldintza bereziak:

33.4.1. Enpresa esleipendunak zaindu behar du kontratua gauzatzeko adskribatzen diren langileen gutxienez % 30 mugagabe izatea. Aipatu betebeharra ez da eskatuko enpresako langile guztietatik % 80 baino gehiagok kontratu mugagabea badute.

33.4.2. Ehuneko kalkulatuko da kontratua gauzatzeko beharrezkoak diren langileen guztizko kopurua hartuko da oinarri, guztizko horren barruan sartzen direlarik kontratua gauzatzeko enpresa azpikontratistek esleitu dituzten langileen kopurua.

33.4.3. Era berean, enpresa esleipendunak kontratua gauzatzean bermatu beharko du produkzio-katean barrena zaintzen direla oinarrizko lan-eskubideak. Horretarako, Lanaren Nazioarteko Erakundearen oinarrizko hitzarmenak betetzea eskatuko du, besteak beste, sindikatu-askatasuna, taldeko negoziazioa, behartutako lanak edo derrigorrezko lanak kentzea, arraza, kolore, sexu, erlijio, iritzi politiko, arbaso nazional edo jatorri sozialarengatik enplegu- eta lanbide-bazterketak ezabatzea eta haurren lana abolitzea.

33.5. Laneko segurtasunaren eta osasunaren aldeko gauzatze-baldintza bereziak:

Esleipendunak betebehara hauek hartuko ditu enpresa kontratistaren edo azpikontratistaren kargura:

- a) Izatea –prebentzio-planarekin bat etorritik– zuzendaritzako funtzioak dituzten pertsonak eta beharrezko prestakuntza jaso dutenak laneko arriskuen prebentzioa barneratzeko haiek gauzatutako jardura eta hartutako erabakietan.
- b) Obran aldizkako ikuskaritza-prozedura izatea, prebentzio-antolaketa bidez, prebentzio planaren egiaztapen espezifikoen prozeduran ezarri jarraibideen arabera. Prozedura horretan sartu beharko



dira Arriskuen Ebaluazioan / Segurtasun- eta Osasun-planean aurrez ikusitako babes kolektiborako neurrien aldizkako egiaztapena eta NBEren erabilera eraginkorra.

- c) Kontratua gauzatzean langile immigranteek parte hartzen badute, esleipendunak izan beharko ditu, prebentzio-sistema egokia bermatze aldera, komunikazio eraginkorra ahalbidetzen duten prozedurak.

34. KONFIDENTZIALTASUNA ETA DATU PERTSONALEN ERABILERA

34.1 Konfidentzialtasuna

Kontratua gauzatzean enpresa kontratistak eskura duen informazio guztia isilpekoa izango da. Kontratistak eta azken horrek kontratua gauzatzearen arduradun izendatu duen pertsonak ezin dute beren mesederako erabili. Ezin diote, ezta ere, hirugarren pertsonari eman lan kontratatuei buruzko datuak edo ezein informazioa ez eta gauzatzearen bidez eskuratzen duten informazioa, betiere, EEEren idatzizko baimenik eduki ezean. Horrenbestez, kontratistak eta arduradun aipatuak derrigorturik daude haien esku dauden bitarteko guztiak jartzera zaintzeko lan gauzatuaren bidez lortutako informazioaren eta emaitzek konfidentzialtasuna. Ondorio horietarako, aplikagarria izango da SPKLeko 124.2 artikuluan jasotakoa. Edonola ere, datu pertsonalak lantzen ez diren lanak gauzatzen direnean, enpresak eta enpresako langileek debekaturik dute datu pertsonalak eskuratzea. Are gehiago, zerbitzua eskaintzearen ondorioz langileek ezagutu dituzten datuak isilpean gordetzeko betebeharra dute (Datu Pertsonalak Babesteko Legea garatzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuko 83.2 artikulua).

34. 2 Datu pertsonalen erabilera

Datu pertsonalen erabileratzat honako jardura hauek hartuko dira: izaera automatizatua izango duten ala ez eragiteka eta prozedura teknikoak, zeinen bidez datuak bildu, grabatu, gorde, prestatu, aldatu, blokeatu eta deuseztatzea ahalbidetzen duten. Halaber, komunikazio, kontsulta, interkonexio eta transferentzien bidezko datu konexioak, baldin eta horiek pertsona fisikoa nor den jakin edo identifikagarria izateko bidea ematen duen edozein informazioa badute.

Kontratuan datu pertsonalen erabilera kontuan hartzen baldin bada, edo enpresa kontratistaren edo azpikontratistaren sarbidea horrelako datuetara aurreikusten baldin bada, honako araua hauek beteko dira:

1. Datuak erabiltzeko arduradunaren jarraibideen arabera erabiliko ditu datuak kontratistak.
2. Erabiliko diren datu pertsonalak kontratu hau gauzatzeko beharrezkoak direnak baino ez dira izango, eta ezin izango dira erabili bestelako xedeekin.
3. Kontratu hau gauzatzeko erabiliko diren datuak ez zaizkio inori emango. Hori horrela, kontratistak konpromisoa hartzen du datu horiek edo datu horiekin eraturako fitxategiak ez jakinarazteko, eskualdatzeko, emateko edo agerrarazteko besteri inolako bidez (ahoz, idatziz, posta elektronikoz, paperez edo sarbide informatikoz); ezta bistaratzeko ere.
4. Abenduaren 13ko Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoaren 10. artikuluan xedatutakoa betez, kontratu honen gauzatzean arituko diren kontratistak eta gainerako eragileek isiltasuna gorde beharko dute zenbait daturen inguruan. Isiltasun gordetzeko behar hori kontratua amaitu ondoren ere izango da indarrean.
5. Abenduaren 13ko Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoak xedatutakoa betez, kontratu honen gauzatzearen ondorioz, kontratistak konpromisoa hartzen du datu pertsonalen segurtasuna bermatzeko, eta horretarako, neurri tekniko, administratibo eta eraketako guztiak hartuko dituela. Ildo horretatik, honako arau hauek beteko ditu:
 - a) Lanei ekin aurretik, enpresa esleipendunak kontratazio-organoari datu hauek eman beharko dizkio: datu pertsonaletara sarbidea izango duten langile guztien izena, abizenak, zereginak eta lana egingo duten lekua. Kontratua gauzatzen den bitartean aldaketaren bat egin behar izanez gero, alta edo baja eman langileren bati, enpresa esleipendunak haren berri emango du astebeteko epean, aldaketa gertatzen den egunetik kontatzen hasita. Enpresa esleipendunak nahiz aipatutako langile horiek konpromisoa hartu behar dute idatziz isiltasun profesionala gordetzeko datu pertsonalez.
 - b) Enpresa esleipendunak segurtasun neurri egokiak hartu beharko ditu, plegu honetan azaltzen diren tratamendu zentroak, ekipoak, lokalak eta programak behar bezala erabiltzeko.
 - c) Kontratu honen xedea diren lanak bukatu eta gero, datu pertsonalak izango dituzten euskarri guztiak itzuliko ditu enpresa esleipendunak, edo horrelako datuak izango dituzten fitxategiak ezabatu edo deuseztatuko ditu. Deuseztatzen era egokian egingo da, hau da, datuak berreskuratzeko aukerarik



ez izateko. Fitxategiak itzultzeko edo deuseztatzeko egiaztapena akta bidez egingo da, enpresa esleipendunaren ordezkariak eta lanen zuzendariak sinatuko duten akta horretan azalduko da ekintza hori.

6. Kontratua indarrean egongo den bitartean, EEEk kontrolak egiteko eskubidea izango du, ezarritako segurtasun neurriak, eta hala badagokio, neurri zuzentzaileak behar bezala betetzen direla egiaztatzeko.

35. EGINDAKO LANEN JABETZA ETA JABETZA INDUSTRIAL ETA INTELEKTUAL ESKUBIDEAK

35.1 Lanen jabetza. EEEren jabetzapekoak izango dira egingo diren lanak edozein fasetan, eta haren esku egongo da horien erabilera, Hala, edonoiz eska dezake lanen zatiren bat jasotzeko, egiteko behin betiko programarekin eta bateragarria denean eta lanei eragozpenik sortu gabe.

35.2 Jabetza industrial eta intelektual

Jabego intelektual edo industrialaz babestutako produktuak garatzea eta erabiltzeko moduan jartzea xede duten zerbitzu-kontratuak EEEren esku utziko dute aipatutako jabego intelektual edo industrial.

Jabego intelektualari atxiki dakizkiokeen lanak EEEri eskusibaz emandakoak direla ulertuko da, salbu eta alde zurretiko eskubideak dauden kasuetan, halakoetan emakida eskusibotasunik gabe egin daiteke eta.

Kontratua indargabetu ahal izango da, baldin eta egiaztatzen bada kontratistak kontratugaitzat jo daitekeen lana, osorik nahiz zatika, hirugarrenen esku utzi duela EEEren baimenik gabe. Kontratua indargabetzeko kausa hau gertatzekotan, kontratistak kontratua bete gabe utzi duela ulertuko da ondorio guztietarako.

36. AKATSAK DITUZTEN LANAK EDO GAIZKI GAUZATUTAKO LANAK

Enpresa kontratista izango da lan kontratatuak egoki gauzatzearen lan horietan egon litezkeen akatsen erantzule. EEEren ordezkariak gauzatu bitartean lan horiek aztertu edo aintzat hartu izanak edo zatiko egiaztatzeetan, balioespenetan edo ziurtatzeetan onartu izanak ez du kontratista aipatutakoaz salbuetsiko eta ez dio, ezta ere, inolako eskubiderik emango. Lan akastun edo gaizki egindakoa baldin bada EEEk berak emandako agindu baten ondorio zuzen eta berehalakoa, enpresa kontratistak ez du erantzukizunik izango.

37. KONTRATISTARI ORDAINTZEA

Kontratistak eskubidea du benetan burutu dituen hornidurak eta lanak ordain dakizkion, eta ordaindu ere, hitzartutako prezioetan ordain dakizkion, kontratuari, onartutako aldaketei eta Kontratuko arduradunak edo EEEk idatziz emandako aginduei jarraituz.

Lanen balioespena eta ordainketa APKLAOko 199. eta 200. artikuluek xedatzen dutena kontuan hartuta egingo dira, eta agiri honetako karatulan adierazitakoa ere aintzat hartuko da, alde zurretik lanen arduradunak do ikuskatzaileak oniritzia eman behako du, edo kontratazio-organoak aukeratutako kontratuaren arduradunak oniritzia emanda.

38. ZIGORRAK

38.1 Kontratazio-organoak enpresa kontratistari zigorrak jar diezazkioke, jarraian adierazi hausteengatik eta zehaztu zenbatekoetan:

- a) Kontratuko xede diren zerbitzuak gauzatzeko guztizko epeak edo epe partzialak betetzean berandutzeengatik.
- b) Zerbitzuak egoki ez betetzeengatik, baliabide materialak eta pertsonalak adskribatzeko konpromisoa egoki ez betetzeengatik, eta hizkuntza-baldintzak edo gauzatzearen bestelako baldintza bereziak egoki ez betetzeengatik.
- c) Eskaintzak balioesteko irizpide moduan kontuan hartu diren alderdien gain eragina duten ez betetzeengatik edo betetze ezegokiengatik.
- d) Azpikontratazioari buruzko betebeharrak, baldintzak eta gainerako eskakizunak hausteengatik.



38.2 Hau izango da zigorren zenbatekoa:

- i) a) idatz-zatian jaso zioagatik, kontratuaren zenbatekoaren SPKLen 196. artikulua 4. atalean xedatutakoa beteko da.
- ii) b) eta c) idatz-zatietan jaso zioengatik, kontratuaren prezioaren ehuneko 1. Nolanahi ere, kontratazio-organoak arrazoiz erabakitzen badu haustea larria edo oso larria izan dela, b) idatz-zatiko zioagatik kontratuaren %5 eta, c) idatz-zatiko zioagatik %10 ere ezar daiteke. Hausteak errepikatzea kontuan hartuko da haustearen larritasuna eta zigorraren zenbatekoa kalkulatzeko orduan.
- iii) d) idatz-zatian jaso zioagatik, azpikontratuaren %50 ere.

Edonola ere, zigor maximo metatua izango da kontratuko prezioaren %20. Muga aipatua gainditzen bada, EEEK erabaki dezake kontratua suntsiaraztea.

38.3 Enpresa kontratista berandutzen bada, ez da beharrezkoa izango EEEren alde aurretiko errekerimendua.

38.4 Aurkeztea ezegoki betetzeagatiko zigorrak ezarriko dira kontratua jasotzean EEEK egiaztatzen badu, kontratistari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratuko xede diren zerbitzuak ez daudela jasoak izateko moduan.

38.5 Bitartekoak adskribatzeko konpromisoa, hizkuntza-baldintzak edo bestelako esleitze-baldintza bereziak ez betetzeagatiko edo ezegoki betetzeagatiko zigorrak ezarriko dira EEEK ez betetze aipatua egiaztatzen duen unean.

Ez betetze konpromisotzat haxe joko da: bete ez den irizpidetik kontratistak lortutako puntuazioaren %50 kenduz gero, haren eskaintza ez denean balioespen handiena lortzen duena.

38.6 Zigorrak betetzeko, kopuru aipatuak kenduko zaizkio kontratistari, hari ordaindu behar zaizkion guztizko ordainketatik, ordainketa partzialetatik edo, bestela ere, behin betiko bermeetatik, aplikatzeko izango delarik.

38.7 Betetze akastunengatiko zigorrak ezarriko dira alde batera utziz akats aipatuak konpontzeari buruz kontratistari legez dagozkion betebeharrak.

38.8 Zigorrak ezartzean ez da bazter utziko kalte eta galerengatiko kalte-ordaina.

39. KONTRATUA ALDATZEA ETA ETETEA

39.1. Kontratazio-organoak kontratua alda dezake aurreikusi ez diren kontuak ebazteko, betiere, aldaketa horrek ez badu gainditzen hasierako kontratuaren prezioaren 100eko 20. Kontratistak derrigor izan behar ditu kontuan aldaketa aipatuak. Aldaketek, banaka edo guztiek batera, gainditzen badute ehuneko aipatua, kontratistak eskubidea izango du kontratua suntsiaraztea eskatzeko.

39.2. Kontratuzko aldaketen prezioa bi alderdiek finkatuko dute.

39.3. Mantentze-lanak egiteko zerbitzu-kontratuen kasuan, ekipoetan egon daitezkeen aldaketak edo mantentzeko gorabeherak kontratistak izango dituen betekizunen artean sartuko dira.

Aldaketa horiek direla eta, kontratistak ez du kate-ordainik jasotzeko eskubiderik.

40. KONTRATUA LAGATZEA, AZPIKONTRATAZIOA ETA ORDAINKETAK ENPRESA HORNITZAILEEI

40.1. **Lagatzea:** Kontratua laga daiteke SPKLeko 209. artikulua baldintzetan. Nolanahi ere, alde aurretik, EEEren berriazko baimena behar du kontratuaren lagapenak.

40.2 **Azpikontratazioa:**



40.2.1. Erregimena: Enpresa kontratistak hirugarrenekin hitzartu dezake zerbitzuaren parte bat gauzatzea, betiere, agiri honetan jasotako aurreikuspen bereziak kontuan harturik, eta esleipendunak berak egin behar duela esaten ez badu.

Nolanahi ere, lanak egiten diren bitartean, EEEK eskubidea izango du azpikontratatistak baztertzeko, baldin eta kontratuan adierazten diren lanak behar bezala egiten ez badituzte edo justifikatuta badago.

Azpikontratatistek esleipendunaren aurrean soil-soilik erantzun beharko dute, eta, beraz, azken horrek bereganatuko du erantzukizun osoa EEEren aurrean, kontratu hau betetzearen ondorioz, eta berak egin izango balu bezala erantzungo du.

40.2.2 Betekizunak. Lizitatzailleek edo enpresa kontratistak aurreikusita duen kontratazioa egin baino hamabost egun naturaleko epearekin, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dizkio kontratazio-organoari:

1. Idatzizko komunikazioa, zeinean zehaztuko dituen egin nahi diren azpikontratazioak, kontratuko zer zati eta zer zenbateko azpikontratatu den eta azpikontratatistaren nortasuna eta zeinean adieraziko duen, elementu tekniko, giza elementu eta eskarmentu nahikoa izateagatik, azpikontratatu gai dela (azpikontratatistak klasifikazio egokia badu azpikontratatu nahi den kontratuaren zatia egin ahal izateko, horren berri ematea nahiko izango da, eta, beraz, bestea ez luke komunikatuko.
2. Jakinarazpen horrekin batera, azpikontratazio bakoitzerako ondoko agiri hauek aurkeztu beharko ditu:
 - a) Egiaztagiria, kontratuaren erreferentzia berariaz aipatua, kontratuak egiteko edo sinatzeko inolako debekurik ez duela egiaztatzeko, SPKLeko 49. artikuluan adierazten direnak. Egiaztatze hori agiri honetako 2. eranskinean dagoen erantzukizun-adierazpena betez egin daiteke, edo SPKLeko 62. artikuluan adierazten diren beste edozein moduz.
 - b) Egiaztatzea zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak beteta edukitzea. Egiaztatze aipatua gauzatuko da agiri honetako 25 klausulan adierazi bezala.

40.2.3. Eskaintzan adierazpena. Enpresa lizitatzaillei eskaintzan egingo dituzten azpikontratazioez adierazi beharra dutela eskatu baldin bazaie, eta adierazpen hori azpikontratatistak banan-banan identifikatuz eta haien gaitasuna egiaztatuz egin bada, ez da beharrezkoa izango atal honetako 1. puntuan azaltzen den komunikazioa egitea.

Komunikazio eta egiaztapen hori egin beharko da, baldin eta azpikontratazio horiek eskaintzan adierazitako enpresekin egin ordez, beste enpresa batzuekin egiten badira, edo eskaintzan azaltzen diren zatien aldean, beste batzuk badira.

VII.- KONTRATUA AMAITZEA

41. BETETZEA ETA HARTZEA

41.1 Enpresa kontratistak kontratuaren xedea oso-osorik bete duenean —kontratuan ezarritako baldintzen arabera eta EEE gogobete izanik— orduantxe joko da kontratua betetzat.

41.2 Kontratua betetzearen konstatazioak eskatuko du hartzeko edo adostasun ekitaldi positibo eta formala EEEren aldetik, kontratuaren xedea diren lanak egin edo aurkezten direnetik hilabeteko epean.

41.3 Egindako lana desegokitzat jotzen bada, edo kontratatuarekin bat ez badatorrela iritziz gero, idatziz jakinaraziko zaizkio enpresari jarraibide zehatzak, antzemandako akatsak edo gabeziak konpontzeko. Jakinarazpen horretan finkatuko da epea akatsak zuzentzeko.

41.4 Aipatutakoa bete arte ez da hartzea egingo, eta orduan ekitaldiaren akta jasoko da.



41.5 Egin beharreko zuzenketak egiteko emandako epea igarota, eta egiten ez baldin badira, EEEK ez du hartzea egingo, eta ordainketa egiteko betebeharretatik libre egongo da, edo hala badagokio, emandako dirua berreskuratzeko eskubidea izango du.

41.6 Nolanahi ere, kontratuan ezarritako baldintzak betetzen ez badituzte egindako lanek, eta horren errua EEErena ez delarik, kontratazio-organoak hartzeari uko egin diezaioke, eta ordainketa egiteko betebeharretatik libre egongo da, edo hala badagokio, emandako dirua berreskuratzeko eskubidea izango du.

42. BERMEA ITZULTZEA

42.1. Behin betiko bermea ez da bueltan emango edo ezeztatuko bermealdia bete arte eta kasuan kasuko kontratua egoki bete arte edo, bestela ere, kontratistaren errurik gabe kontratua suntsiarazi arte.

42.2. Behin kontratuaren likidazioa onarturik eta bermealdi ezarria beterik ez bada erantzukizunik, berme sortua bueltan emango da edo kauzio-abala ala aseguruua ezeztatu.

42.3. Hartzea alde baldin bada, kontratistak bermearen zati proportzionalaren itzulera edo likidazioa eska dezake, agiri honetan horrela baimentzen bada.

43. KONTRATUA AMAITZEA ETA SUNTSIARAZTEA

Kontratua amaituko da betetzen denean edo aurretiaz suntsiarazten denean.

Hauek dira kontratua suntsiarazteko zio: agiri honetan berariaz aurreikusitakoak; Kode Zibilean aurreikusitakoak; eta SPKLko 206 artikuluko a), c), e) eta g) idatz-zatietan jasotakoak.

VIII.- JURISDIKZIOA ETA HELEGITEAK

44. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa erabakiko da kontratu hau prestatzeko edota esleitzeko fasean suerta daitezkeen gatazkak erabakitzeko (SPKLeko 21. artikulua).

Jurisdikzio zibila erabiliko da kontratua interpretatetik, aldatzetik, suntsiaraztetik edo amaitzetik suerta daitezkeen gatazkak ebazteko. Bi aldeek –EEEk nahiz kontratista esleipendunak– boluntarioki men egiten diote Bilboko Epaitegien eta Auzitegien eskumenari, eta berariaz uko egiten diete egoki dakizkiekeen beste eskumenei.

45. KONTRATAZIO AUZIETARAKO HELEGITE BEREZIA

Helegite berezia aurkez daiteke behin-behineko esleipen-erabakien aurrean, lizitazioa arautzeko agirien aurrean, prestazioaren ezaugarriak ezartzen dituzten agirien aurrean, eta aurreko prozeduran gauzatutako izapide-egintzen aurrean, betiere, azken horiek eragin zuzena edo zeharkakoa badute esleitzearen gain, ukatzen badute prozeduran jarraitzeko aukera, edo, legezko eskubideei edo interesei dagokienez, sortzen badute konponbiderik ez duen galera edo babesgabetasuna.

Helegite aipatua izapidetuko da SPKLeko 37. artikuluan xedatutakoaren arabera. Helegitearen ebazpenaren kontra soilik da egoki administrazioarekiko auzien helegitea jartzea, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera.



**AGIRIKO I. ERANSKINA
BALIABIDEAK ADSKRIBATZEKO ETA GAUZATZE-BALDINTZA BEREZIAK BETETZEKO
KONPROMISOA**

Enpresak hitz ematen du bere produkzio-antolakuntza erabiliko duela jarduera kontratatua garatzeko eta, horrez gainera,

Gaitasun teknikoari buruzko egiaztagiriak osatze aldera, kontratua gauzatzeko baliabide material eta pertsonalen artean, enpresak hitz eman behar du jarraian adierazi baliabideak erabiliko dituela (*aipatu baliabideak, edonola ere, kontratazio-organoak finkatu ditu, uste baitu baliabide pertsonalek edo materialek gutxieneko baldintzak eta prestakuntzak izan behar dituztela*):

I.- Baliabide materialak

.....

II.- Baliabide pertsonalak:

.....

**BALIABIDEAK ADSKRIBATZEKO ETA GAUZATZE-BALDINTZA BEREZIAK BETETZEKO
KONPROMISOAREN ADIERAZPENA**

..... jaunak/andreak
..... udalerriko
..... kalean bizi denak
eta NAN duenak,-en izenean
(bere izenean ala ordezkatzan duen erakunde edo enpresaren izenean), zeinaren IFK
..... den, jakinarazpenetarako helbideako
..... kalea PK den, eta
tfnoa den

ADIERAZTEN DU:

Hartzen duela karatulan nahiz agirian zehaztu gauzatzeko baldintza bereziak betetzeko konpromisoa eta kontratua gauzatzeko ondoko hauek erabiltzea: a) berezko bere produkzio-baliabideak, b) gauzatzeko baldintza berezi moduan agirian finkatu baliabideak, c) "A" gutun-azalean (Gaitasuna eta kaudimena) egiaztatu baliabideak, eta, finkaturik baleude, baita eranskin honetan adierazi baliabide pertsonal eta material zehatzak ere.

Eta jasota gera dadin, adierazpen hau sinatzen dut,en,
.....ko(a)ren(e)(a)n.

Sinadura



**AGIRIKO II. ERANSKINA
GAITASUNARI BURUZKO ERANTZUKIZUN-ADIERAZPENA**

..... jaunak/andreak,
.....ko bizi eta NAN
..... duenak,-en izenean (bere izenean ala ordezkaten duen erakunde edo enpresaren izenean), zeinaren IFK den, jakinarazpenetarako helbideako kalea PK den eta tfnoa den

EER/10/008-A espedienteari dagokionez,

ADIERAZI DU

1. kontratu honi dagokionez, jarduteko gaitasun osoa duela eta jarduera gauzatzeko beharrezkoak diren baimenak dituela.
2. Ez berak, ez berak ordezkaten duen enpresak, ezta enpresako administrariak edo haren legezko ordezkariak ez dutela Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legeko (urriaren 30eko 30/2007 Legeko) 49.1 artikuluan jasotako Herri Administrazioekin kontratatzeke debekurik.
3. Era beran, adierazten du enpresak beterik dituela indarreko xedapenen bidez ezarritako zerga-betebehar nahiz Gizarte Segurantzarekiko betebehar guztiak. Horrela, hitz ematen du hari kontratua behin-behinekoz esleitzen bazaio, gehienez ere 15 asteguneko epean –Administrazio honetako kontratzailearen profilean behin-behineko esleipena argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita– aurkeztuko duela aipatu baldintzaren egiaztatzea, administrazio kausula berezien agiriko 25. klausulan adierazi bezala.
4. Ez dela esleipenduna edo ez duela parte hartu ez kontratua prestatzeko agiriak ezta baldintza teknikoak lantzeko orduan ere, ez berak bakarrik, ezta aldi baterako enpresaburu-elkartearen bidez ere.
5. *Ondoko ataletan, BAI edo EZ erantzun.*
 - 5.1. Euskadiko Kontratisten Erregistro Ofiziala
 - a) Euskadiko Kontratisten Erregistro Ofizialean inskribaturik dagoela, indarreko egiaztatzeak, eta:
 - dagokion egiaztatzea aurkeztu duela (*bai ala ez erantzun*): _____
 - baimena ematen duela aipatu egiaztatzea ofizioz sartzeko (*bai/ez*): _____
 - b) Hura emateko oinarri hartu ziren inguruabarrak oraindik indarrean direla adierazten duela (*bai ala ez erantzun*): _____
 - 5.2. Enpresa taldea (*Merkataritzako Kodeko 42.1 artikulua*)

Enpresa aipatua enpresa talde bateko kide dela (*bai/ez*): _____

Baitez erantzunez gero, jarraian edo agiri honi erantsirik zehaztu beharra dago taldearekiko lotura sortzen duen inguruabarra eta, baita ere, talde bereko enpresen zerrenda, lehiaketan parte hartzeko interesa dutenak zehaztuz.

Eta jasota gera dadin, adierazpen hau sinatzen dut,en,ko(a)ren(e)(a)n.

Sinadura



AGIRIKO III. ERANSKINA BEHIN BETIKO BERMEA EREDUA

[...] bankuak, (aurrerantzean, "**Bankua**") eta haren izenean eta ordezkartzan [...], egintza hau egiteko bezainbat aginpide duenak, [...] notarioaren aurrean, [...] protokolo-zenbakiarekin, [...] egunean emandako ahalmenaz baliaturik, eta aldatu ezta kendua ere izan ez dena.

ABALATZEN dio [...] sozietateari (aurrerantzean, "**Sozietatea**"), lehen eskarian eta era solidarioan, .I.F.K.: [...], eta [...] helbidea duenari, [...], [Erakunde Kontratatzailerearen izena] aurrean (aurrerantzean, "**Onuraduna**"), I.F.K.: [...], eta [...] helbidea duena, [...] euroko gehieneko zenbatekoraino (aurrerantzean, "**Bermatutako zenbatekoa**"), [kontratuaren izena idatziz] xedea duen kontratua modu egokian garatu eta gauzatzeko, [...] datarekin Sozietateak eta Onuradunak sinatutako kontratua, eta Bankuak ezagutzen duela adierazita.

Abalaren baldintzak hauexek dira:

- (i) Bankuak berariaz uko egiten die ondasunen ordenari, eskusioari eta zatiketari; baita defentsa agertarazteko era guztiei ere.
- (ii) Abal honek izaera abstraktua du: beraz, Onuradunak ez du zertan adierazi edo justifikatu bermea gauzatzeko dituen arazoiak, eta bermearen kontura ordainketaren eskariaren aurrean, Bankuak ezin izango du oztopo edo eragozpenik jarri, Sozietateak jar ditzakeen eragozpenak edozein direla ere.
- (iii) Onuradunak eskatzen duen diru kantitatea ordaindu beharko dio Bankuak bost (5) egun naturaleko gehieneko epean, idatziz edo beste modu batez [...] helbidera egiten den eskariaren egunetik kontatzen hasita.
- (iv) Onuradunak eskatuko duen diru-kantitatea ordainketa batean edo bitan egingo dio Bankuak, onuradunak esango dion eran; betiere Bermatutako zenbatekoa gainditzen ez bada.
- (v) Onuradunak emandako bankuaren kontu-korrontean egingo dira ordainketak, kenketarik gabe, honako arazoia hauengatik: zergak, eskubideak, karguak, konpentsazioak, erreklamazioak, eta oraingo edo etorkizuneko kenketa edo atxikipenak.
- (vi) Abal honen iraupena mugagabea izango da, Onuradunak baliogabetzeko baimena eman arte, idatzizko adierazpen baten bidez.
- (vii) Berme hau Espainiako zuzenbidearen arabera arautzen da. Gerta daitezkeen auziak erabakitzeke bi aldeak jartzen dira Bilboko epaitegi eta auzitegien mendean. Era berean, berariaz egiten diete uko erabilgarri izan ditzaketen bestelako jurisdikzioei.

Berme hau Bermeen Erregistro Ofizialean erregistratu da, [...] zenbakiarekin, 201[](e)ko []aren(e)an.

[Lekua eta eguna]
[Erakundearen izen soziala]
[Ahaldun(ar)en sinadura]



**AGIRIKO IV. ERANSKINA
ESKAITZA EKONOMIKOA**

..... jaunak/andreak,
.....ko
..... kalem bizi denak eta NAN
..... duenak,-en izenean (*bere izenean ala ordezkatzeko duen erakunde edo enpresaren izenean*), zeinaren IFK den, jakinarazpenetarako helbideako kalea PK den eta Tfnoa den

ADIERAZTEN DU

I.- Izan duela *“Euskal Autonomia Erkidegoko Energia Eolikoaren Bigarren Lurralde Arloko Plana idazteko eta hari lotutako Ingurumen Iraunkortasunaren Txostena prestatzeko aholkularitza eta laguntza teknikoa ematea”* xede duen kontratua esleitzeko prozeduraren berri.

II.- Halaber, ezagutzen dituela baldintza teknikoen agiria, administrazio-klausula berezien agiria eta kontratu hau zuzenduko duten gainerako agiriak. Horiek guztiak, salbuespenik gabe, bere gain hartzen ditu berariaz, eta men egiten die.

III.- Ordezkatzen duen enpresak betetzen dituela kontratuko xedea betetzeko indarreko arauak eskatzen dituzten baldintza eta betebeharrak guztiak, eta eskaintza lantzeko orduan kontuan izan dituela enplegua babesteari, lan baldintzei, laneko arriskuak prebenitzeari eta ingurumena babesteari buruzko indarreko xedapenetatik eratorritzen diren eginbeharrak guztiak.

IV.- Eskaintza hau aurkezteari dagokionez, eskaintza gauzatzea proposatzen duela azpiko koadroetan adierazi prezioetan, BEZ gabe. Zenbateko aipatuari (*)..... (*letraz idatzi*) euroko BEZa dagokio.

Zenbateko aipatuaren barne izango dira zeinahi motatako zerga, tasa eta kanon aplikagarri guztiak, bai eta prestaziotik erator daitekeen edo agiri honetan jasotako betebeharrak betetzearen ondorioz esleipendunari sor dakioken zeinahi gastu ere.

.....en,ko(a)ren
.....(e)(a)n

Sinatua:
NAN:

(*) Salbuespen subjektiboari dagokionez, egiaztagiria zehaztu eta erantsi beharko dira.



**AGIRIKO V. ERANSKINA
BESTE HOBKUNTZA BATZUEI BURUZKO PROPOSAMENA, EZ DUTENAK ERAGINGO PREZIO
ESKAINIA HANDITZEA ETA OINARRI DUTENAK ESKAINTZAK BALIOESTEKO BESTE IRIZPIDEETAN
JASO EZ DIREN PRESTAZIOAK GEHITZEA KONTRATUAN AGINDUTAKO BETEBEHARREI**

..... jaunak/andreak,ko
..... kalean bizi denak eta NAN
..... duenak,-en izenean (bere
izenean ala ordezkatzan duen erakunde edo enpresaren izenean), zeinaren IFK
..... den, jakinarazpenetarako helbideako
..... kalea PK den, eta
Tfnoa den

Administrazioko klausula berezien agiriko 14.1 klausulan ezarritakoarekin bat etorriz,
erreferentzia duen oinarritzko eskaintzari/aldaerari dagokionez (egoki dena adierazi), jarraian zehaztuko
diren hobekuntza-proposamenak egin ditu, eskaintzako prezioa handitu gabe. Proposamenen oinarria
da kontratuan agindutako eta eskaintzak balioesteko beste irizpideetan jaso ez diren betebeharrei
beste prestazio batzuk gehitzea.

Edonola ere, hobekuntza guztiak banan-banan aztertuko dira. Horrela, kontratazio-organoak erabakiko
du hobekuntza horietako bat, batzuk edo bate ere ez jasotzea kontratuaren barruan.

HOBKUNTZAREN ZENBAKIA ...	
Hobekuntzaren azalpena:	

HOBKUNTZAREN ZENBAKIA ...	
Hobekuntzaren azalpena:	

HOBKUNTZAREN ZENBAKIA ...	

.....en,ko(a)ren(e)(a)n

Sinatua:
NAN:

“Eskaintzak balioesteari begira, hobekuntza ebaluagarrien gehieneko kopurua eta baldintzak
karatualan adierazitakoak dira, hiru baino gehiago izanez gero, enpresak gehitu ahal ditu eranskin
honetan dauden eremuak”.



AGIRIKO VI. ERANSKINA
ESTATUAREKIKO ETA EUSKADIKO FORU ALDUNDIEKIKO ZERGA-BETEBEHARREI BURUZKO
INFORMAZIOA UZTEKO BAIMENA (*).

..... jaunak/andreak,
.....ko kalean
bizi denak eta NAN duenak,-en
izenean (bere izenean ala ordezkatzeko duen erakunde edo enpresaren izenean), zeinaren IFK
..... den, jakinarazpenetarako helbideako
..... kalea PK den, eta
Tfnoa den

EER/10/008-A espedienteari dagokionez,

EEeri baimena ematen dio baliabide informatikoen edo telematikoen bidez eskatu dezan zerba-
betebeharrak beteta izanari edo ez izanari buruzko informazioa utz diezaioten, goian adierazitako
espedienteko kontratazio-prozeduraren ondorioetarako, betiere, bat etorritik Datu Pertsonalak
Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan; *Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko*
Zerga eta beste zerga-arau batzuei buruzko abenduaren 9ko 40/1998 Legeko laugarren xedapen
gehigarrian; eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenetan ezarritakoarekin.

Eta jasota gera dadin, adierazpen hau sinatzen dut,en,ko
.....(a)ren(e)(a)n.

Sinadura

(*) Baimen honek, berez, ez du salbuesten bestelako dokumentazioa aurkeztetik, zerga-betebeharrak
modu egokian betetzen direla egiaztatzen.



AGIRIKO VII. ERANSKINA
ENPRESAK EMANDAKO INFORMAZIOA KONFIDENTZIAL IZENDATZEKO EREDUA

..... jaunak/andreak,
.....
..
..... udalerriko
..... kalean bizi denak
eta NAN duenak, bere izenean / ordezkatzan duen
..... enpresaren izenean, zeinaren IFK den,
jakinarazpenetarako helbideako
..... kalea PK den eta zeinaren Tfnoa
..... den

ADIERAZTEN DU

EER/10/008-A zenbakidun kontratazio-espeditenteko (*gutun-azala zein den zehaztu*)
gutun-azalean jasotako agirietatik, jarraian aipatzen diren informazioak eta eskaintzako alderdiak
konfidentzialak direla, merkataritzako sekretuekin edo sekretu teknikoekin lotura izateagatik. Hauek
dira, beraz, agiri konfidentzialak:

Adierazten du, baita ere, agiri horiek konfidentzialak direla ondoko arrazoi hauengatik:

.....en,ko(a)ren(e)(a)n

Sinatua:
NAN:



AGIRIKO VIII. ERANSKINA ZEHAZTAPEN TEKNIKOEN TXOSTENA

AURREKARIAK

Energia Eolikoaren Lurralde Arloko Plana maiatzaren 14ko 104/2002 Dekretuaren bidez onartu zen behin betikoz. Plan edo dokumentu horretan, EAEn parke eolikoak jartzeko kokagune egokienak identifikatu eta hautatzen dira, garai hartan indarrean zegoen araudia eta ingurumen, teknika eta energia irizpideak kontuan hartuz; baita sasoi hartako informazio eskuragarria aintzat hartuta ere.

Dokumentu horretan identifikatu eta hautatzen ziren kokagune batzuk garatu dira; beste batzuk, aldiz, oso eztabaidatuak izan dira eta kontrako jarrerak eduki dituzte, Energia Eolikoaren Lurralde Arloko Plana egiteko erabili ziren irizpideak zaharkituak geratu zirela iritzita.

Hori horrela, 2008. urtean Eusko Legebiltzarrak legez besteko proposamena onartu zuen, eta agintzen du Energia Eolikoaren Lurralde Arloko Plana berraztertu eta gaurkotzeko, energia berriztagarrien esparruaren barruan. Oraingo planaren berrazterketak bigarren plan baten idazketa eta onarpena ekarri beharko du.

Hain zuzen ere, agiri honen xedea da Energia Eolikoaren Bigarren Lurralde Arloko Planaren nondik norakoa zehaztea; ingurumen, teknika eta energia irizpide berriak sartuz eta aintzakotzat hartuz.

ESPARRU ARAUTZAILEA ETA PROZEDURA

Energia Eolikoaren LAP bideratzeko esparru arautzailea maiatzaren 31ko 4/1990 Legean oinarritzen da, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaz (LOTPV) diharduenak. Beraz, lege hori garatzen dituzten gainerako arauetan integratzeaz gain, kontuan hartu beharko dira Lurralde Antolamenduaren Zuzentarauak, Lurralde Zatikako Planak eta Lurralde Arloko Planak.

Bestetik, Energia Eolikoaren LAP ingurumen inpaktuaren ebaluazio bateratuak ezartzen dituen baldintzen pean dago, ingurumen ebaluazio estrategikoa (IEE) izenez ezaguna dena, otsailaren 27ko 3/98 Legearen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko Lege Orokorra, uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuari jarraiki, ingurumen inpaktuaren ebaluazio bateratua arautzen duena, eta apirilaren 28ko 9/2006 Legea dioena betez, ingurumenean plan eta programa batzuek duten eragina ebaluatzen duena.

Beraz, Energia Eolikoaren LAPen nondik norakoa zertzean bi faktore nagusi hauek hartu behar dira kontuan: Energia Eolikoaren LAP bera eta bere ingurumen inpaktuaren ebaluazio estrategikoa.

Aipatutako bi faktore horietako lehenengoari dagokionez, Lurralde Arloko Planen arautzea LOTPVen II. Idazpuruaren III. Tituluan xedatzen da, 16. artikuluan eta jarraian daudenetan. Horrekin batera, xedapen gehigarri batzuetan eta lehen behin-behineko xedapenean ere arautzen dena aintzat hartu beharko da.

LOTPVen Lehen Xedapen Gehigarrian xedatzen denari jarraiki, Energia Eolikoaren LAP onartzeko prozedura Lurralde Zatikako Planen antzekoa da, eta 13. artikulua arautzen du. Onartzeko faseak hauexek dira:



1. Prestaketari ekin baino lehenagoko jarduera: Lurralde antolamendu aldetik, instalazioak jartzeari begira, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arantza Sailari dauden aukerei buruzko kontsulta egitea.
2. Energia Eolikoaren LAPen Aurrerapena prestatzea.
3. Lurralde administrazio publikoei entzutea.
4. Alegazioak aztertzea.
5. Lurralde Antolamendu Batzordearen txostena: hasieran plana onartzeko akordio-proposamenaz.
6. Energia Eolikoaren LAPen hasierako onarpena.
7. Jendaurrean informazioa.
8. Administrazioei entzutea.
9. Hasierako onarpena.
10. Lurralde Antolamendu Batzordearen txostena.
11. Behin betiko onartzeko proposamena egitea.
12. Behin betiko onarpena argitaratzea.

Ingurumen eraginei buruzko ebaluazioari dagokionez, ebaluaziorako prozedura 183/2003 Dekretuaren 6.etik eta 16.era doazen artikuluek eta 9/2006 Legearen 7.tik 15.era doazen artikuluek arautzen dute. Energia Eolikoaren LAP onartzeko administrazioen prozedurekin bat etorritik, honako fase hauek ditu ebaluazio horrek:

1. Aldez aurreko kontsulten txostena edo erreferentziako txostena eskatzea: Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arantza Sailari kontsulta (ingurumen eskuduntzak dituen erakundea), ingurumen inpaktuaren azterlanean jaso behar den informazioaren sakontasun eta zehaztasun mailaz.
2. ISA prestatzea.
3. Ingurumen Inpaktuaz Hasierako Txostena eskatzea ingurumen organoari.
4. Energia Eolikoaren LAPen hasierako onarpena. ISA hasieran onartzen den dokumentazioaren parte izango da.
5. Ingurumen Inpaktuaz Behin Betiko Txostena (IDIA) ingurumen organoari eskatzea. Behin-behinean onartuko den dokumentua bidali beharko da.
6. Energia Eolikoaren LAPen behin betikoz onartzea. ISA behin betikoz onartzen den dokumentazioaren parte izango da.

IEE prozeduraren berriazko izapideez gain, Energia Eolikoaren LAP bideratzeko egin beharreko txosten, entzute eta jendaurrean jartzeari edo informazio publikoari lotutako izapide guztietan izan beharko da ISA, goraxeago zehaztutako prozeduraren arabera.

KONTRATU HONEN XEDEA

Kontratu honen xedea da Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailari aholkularitza teknikoaren ematen Energia Eolikoaren Bigarren Lurralde Plana prestatzeko eta bideratzeko fase edo aldi guztietan. Horrekin batera, planaren ingurumen ebaluazio estrategikoa (IEE) prestatzeko eta bideratzeko laguntza ematea.

Beraz, enpresa esleipendunak behar diren dokumentu tekniko guztiak prestatuko ditu plana behin betikoz onartzeko. Horretaz gain, Energia Eolikoaren LAPez edo IEEz jaso litezkeen alegazioei, iradokizunei eta txostenei eman beharko zaizkien erantzunak aztertu eta proposamenak egin beharko ditu.



ENERGIA EOLIKOAREN BIGARREN LAP EGITEKO OINARRIAK

Energia Eolikoaren Bigarren LAPen berrikuspena eta eguneraketa Eusko Legebiltzarrak ezarritako ildotik egin beharko da; zehazki, 2008ko martxoaren 14an onartutako Hautsi-mautsi Zuzenketan xedatutakoa betez, "*energia berriztagarrien esparruaren barruan*". Esparru hori, funtsean, honako hauek osatzen dute:

Europar Batasuna:

- Energia Berriztagarrien Liburu Zuria.
- 2001/77/CEE zuzentaraua, energia berriztagarrien bidezko elektrizitatearen sorkuntzaz diharduena.

Estatua:

- Energia Berriztagarrien Plana 2005-2010.

EAE:

- Garapen Iraunkorrerako Euskal Ingurumen Estrategia 2002-2020.
- Klima Aldaketari Aurre Egiteko Euskal Plana 2008-2012.
- 3E-2010, Energia Garapen Iraunkorraren Aldeko Estrategia.

Gainera, Energia Eolikoaren LAP egiteko ardatz edo ildo nagusietako bat **Itun Eolikoan** oinarritu behar da. Itun Eolikia zertzen duen dokumentua Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundiek sinatu zuten, eta bertan, besteak beste, EAEn energia eolikoaren planifikazio estrategikoa egiteko lerro nagusiak finkatzen dira. Itun Eoliko horren oinarritzko printzipioak, eta, beraz, Energia Eolikoaren LAP egiteko printzipioak izango dienak, hauek dira:

1. Euskadi 7.200 km²-ko azalera duen herrialde txiki bat da, 2.150.000 biztanle inguru dituena; hau da, biztanle-dentsitate handikoa eta industria asko dituena. Gainera, esan daiteke meatzaritza eta energia baliabide gabekoa dela. Horren ondorioz, energia-iturri berriztagarrien bidez eskuratzen den energia ahalik eta gehien aprobetxatu behar du eta, aldi berean, gune naturalak eta ekosistemak zaindu behar du. Horrek guztiak dakarren erronkari arduradun politikoan, erakundeetako ordezkarien eta gizarte osoaren artean egin behar diogu aurre.
2. Garapen iraunkorraren ikuspuntutik, energia berriztagarriak ezinbesteko energia-iturriak dira. Horretaz gain, energia-kontsumoaren aurrezpenarekin eta teknika, ekonomia eta ingurumen aldetik energia ahalik eta erarik eraginkorrean erabiltzearekin batera, berotegi-efektuko gasen emisioak gutxitzeari begira, garrantzi handikoak dira energia berriztagarriak.
3. Energia berriztagarriak, oro har, eta bereziki energia eolikia albait gehien erabiltzea da energia garapen iraunkorra sustatzeko biderik egokiena ingurumen aldetik.
4. Gaur egun, energia eolikoaren garapen zientifikoa eta teknologikoa kontuan hartuta, energia berriztagarri guztien artean garatuena da eta etorkizun hurbilean gehien garatuko dena. Horren erakusle da, haren ekarpena energia elektrikoa sortzeko; izan ere, gero eta ekarpen handiagoa egiten energia berriztagarrien artean, ekarpen handiena energia eolikoari dagokio. Hartara, karbono emisio gutxiago izango duen garapen eredu sendotzeko, ezinbesteko lanabesak dira energia berriztagarriak.
5. Klima Aldaketari Aurre Egiteko Euskal Planak (2008-2012) ezarritako lehentasunen artean, Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) karbono emisioak murrizteari begira, energia eolikoaren potentziala garatu beharra dago.
6. Izan nahi dugun herri ereduaren esparruan, iraunkorra, elkartasunaren aldekoa eta berritzailea, energia berriztagarrien garapena, eta bereziki, energia eolikoarena ingurumena ahalik eta gehien zaintzeaz bat egin behar da; adibidez, desagertzeko



arriskuan dauden hegazti harraparien habien guneak zaindu behar dira eta, oro har, Natura Sarea 2000 sartzen dituen guneak, agiri honekin batera doan eranskinean azaltzen den bezala. Era berean, gure lurraldean diren interes publikoen kudeaketaren emaitzak eta tokian tokiko interesenak modu egokian integratu beharra dago.

7. Natura eta bere baliabideak zaintzea eta zentzuzko erabilera egitea euskal administrazio publikoen helburu nagusietakoak dira. Hala, euskal gizarteak bat egiten du helburu horiekin eta ekarpen esanguratsua egin du ingurumen aldetik garrantzi handiko natur guneak zainduz; adibidez, Natura Sarea 2000 egitasmoan sartzen diren guneak. Gune horiek babestu eta zaintzearekin batera, natura kontserbatzearen eta natur baliabideen erabilera egokia bateragarria egitea ahalbidetu behar duen egitasmoa. Hain zuzen ere, natur baliabidea den energia eolikoaren garapen egokiarekin bateragarria egin behar da naturaren kontserbazioa; izan ere, ekosistemek dakartzaten onurak babestu eta zaintzea funtsezkoa da gaurko eta etorkizuneko ongizateari eutsi ahal izateko.
8. Garapen iraunkorra lortu nahi duen gizarte batek, dudarik gabe, haren lurraldean aprobeztatu ahal diren energia berriztagarrien bidezko energia ahalik eta gehien erabiltzearen aldeko apustua egin behar du; betiere, garai historiko bakoitzean bertako erakunde demokratikoei erabakitzen dutenari jarraiki, eta energia eolikia ekoizten duten parkeen diseinu ekonomiko-juridikoari dagokionez, tokiko erakundeei partaidetza izatea ahalbidetzen duen ereduaren alde eginez. Era horretan, parkeak jarriko diren tokian tokiko erakundeek ere parte hartzen dute parkeen ezarpenean.
9. Ingurumen aldetik arduratsua den gizarte batek, iturri berriztagarrietatik, eolikotik, kasu, datoren energiaren onurez jabetzen denak, honako helburu hau ezarri behar dio bere buruari: energia-iturri konbentzionaletik, fosiletik zein nuklearretik, eskuratzen den energiaren erabilera ordezkatzeko progresiboki, eta energia horren ordezkari energia-iturri berriztagarrien bidez lortzen dena erabiltzea.
10. EAEn, energiaren planifikazioa eta garapenari lotutako eskumenak Eusko Jaurlaritzari dagozkio. Era berean, energia egitasmoen eta planen ingurumen inpaktua edo eraginaren ebaluazioa egitea Eusko Jaurlaritzaren eskuduntza da, Haren borondate tinkoa da eskuduntza horiek gauzatzea, eta hartara, Europar Batasunak 2020. urterako ezarritako helburua, azken energia-kontsumoaren %20 energia-iturri berriztagarrietatik izatea EBko estatu kideetan, alegia, betetzea. Hori guztia, gure ingurune naturalaren babes handienarekin bateragarria egiten.
11. Eusko Jaurlaritzak eskuduntza horiek gauzatuko ditu, eta adostasun sozial, politiko eta instituzional handiena lortzen saiatuko da. Hori erdiesteko, behar diren arau eta jarraibideak xedatu eta emango ditu.
12. Itun eolikia sinatu duten erakunde guztiek konpromisoa hartzen dute elkarrekiko leialtasun eta gardentasunez jokatzera eta interes publikoen kudeaketa integratzailea egingo dutela hitz ematen dute. Hala, bakoitzaren eskumen esparruan, printzipio horiek gauzatzen eta praktika politikara eta instituzionalera eramaten ahaleginduko dira.

ENERGIA EOLIKOAREN BIGARREN LURRALDE ARLOKO PLANAREN HELBURUAK

Energia Eolikoaren LAP eratzekoan, ingurumen alderdia garrantzitsuenetakoa izan behar da, eta haren helburu nagusia da **karbono emisioak gutxitzea energia berriztagarrien erabilera areagotuz**, plana diseinatuzko ardatz izango diren oinarritzko dokumentuetan jasotzen den bezala. Planaren helburu estrategikoak hauexek izan behar dira:

1. Europar Batasunak ezarritako helburua lortzen laguntzea, eta hartara, 2020an energia-kontsumoaren %20 iturri berriztagarrien bidez ase edo betetzea.
2. Energia eredu iraunkorra lortzeko pausuak ematea, eta Euskadiko Energia Estrategian (3E 2010) jasotzen den bezala, eraginkortasun, bateragarritasun, kalitate, segurtasun eta ingurumena zaintzeko eta hobetzeko irizpideak kontuan hartuz.



3. Energia Eolikoaren garapena eta Euskal Autonomia Erkidegoan den ondare naturala, paisaia eta kulturaren babesa eta sustapenarekin bateragarria egitea.

Helburu estrategiko horiek honako helburu operatibo hauetan zehaztu beharko dira:

- a. Gaur egungo energia eolikoaren azterketa egitea, bai teknologia aldetik bai guen geografiko ezberdinetan jartzeko aukeren aldetik, Horretaz gain, energia eolikia garatzeko, EAEn diren helburu, aurreikuspen eta irizpide nagusien inguruko azterlana egitea, energia eta lurralde aldagaiak kontuan hartuta, Energia Eolikoaren LAPen funtsezko oinarria egituratzeko asmoz.
- b. Energia Eolikoaren LAPen lurralde esparrua definitzea.
- c. Energia eolikia aprobetxatzeko egokiak izan litezkeen kokalekuak edo guneak identifikatzea, aldez aurretik ingurumen eta baliabide alderdiak behar bezala aztertuta.
- d. Ingurumena oinarri hartuta, Energia Eolikoaren LAP idaztea, EAEko ingurumen alorreko erakundeekin harreman eta lankidetzan estuan arituz.
- e. Planifikazio fase honetan, ingurumen ebaluazioan honako alderdi hauei emango zaie lehentasuna:
 - Ingurumenari eta paisaiari eragin dakieken inpaktua ahalik eta gehien gutxitzea, onargarriak diren mailetaraino. Ingurumen eta paisaia aldetik "inpaktu maila" horiek Energia Eolikoaren LAP prestatzean eta idaztean zehaztuko dira, EAEko ingurumen alorreko erakunde eta administrazioekin elkarlanean jardunez.
 - Egitasmoak garatuko dituzten promotoreei ziurtasuna edo segurtasuna ematea, ingurumen aldetik bideragarriak ez diren kokalekuak aldez aurretik identifikatuz. Hartara, ingurumen ebaluazioak, egitasmo fasean, inpaktu edo eraginen prebentzioan, zuzenketan eta konpentsazioan jarriko du arreta gehien.
- f. Energia eolikia garatzeari begira, eskuragarri dauden teknologiak kontuan hartzea. Era horretan, kokalekuetan tamaina, kopuru eta potentzia ezberdinetako haize sorgailuak jartzeko aukera izango da. Hartara, eskuragarri dauden teknika onenen erabileraz, baliabide eolikoaren aprobetxamendu handiena lortuko da, ahalik eta inpaktu txikiena eraginez..
- g. Eredu sektorial koherentea eta adostua eratzea, LAP prestatzeko prozesuan honako erakunde hauen parte hartzearen bidez:
 - Euskal administrazio publiko guztiak, batez ere ingurumenari lotutakoak.
 - Inguruko autonomia erkidegoetako administrazioak, baldin eta EAEn energia eolikoaren garapenak eraginik badu leku horietan.

ENERGIA EOLIKOAREN BIGARREN LURRALDE ARLOKO PLANAREN EDUKIAK

Energia Eolikoaren LAPen edukiak goraxeago aipatutako dokumentu, irizpide eta helburuetan oinarritu beharko dira, eta honako dokumentu hauetan egituratuko dira:

1. Memoria
2. Erabakiak
3. Planoak
4. Eranskinak
5. Ingurumen Iraunkortasunaren Txostena, planaren baitako dokumentutzat hartuko dena.

Plana prestatu edo idatziko duen taldeak zehaztu beharko ditu atal horietako bakoitzaren aurkibidea eta edukiak, eta horren ostean, egitasmoaren idazkaritza teknikoari aurkeztuko dio. Azken horrek aztertu ondoren, egokitzen joko dituen aldaketak egiteko proposatuko dio taldeari. Nolanahi ere, honako eduki hauek sartu beharko dira, prestatuko duen taldeak bestelako edukiak gehitzeko aukera izango badu ere:



Memoria

Dokumentu honetan, planifikazio eolikoaren lurraldetasun kontzeptuei lotutako informazio garrantzitsua bildu eta aztertuko da, LAP egituratu, bideratu eta gauzatzeko behar dena. Memoria bi fase hauetan egingo da:

- (1) Lehenean, azterketak eta diagnostikoak egingo dira.
- (2) Bigarrean, aurrekoan oinarritua, Energia Eolikoaren LAPek proposatzen duen lurralde eredua azalduko da.

Lehen fasean, azterketek eta diagnostikoek izan behar dituzten gutxieneko edukiak hauexek dira:

- Berritu nahi den edo lehengo LAPen azterketa: erabakiak, betetze maila, gauzatzeko arazoak eta oztopoak, berritzeko aukeraren justifikazioa eta abar.
- Energia eolikoaren egungo egoeraz azterketa, bai teknologiaren ikuspuntutik (garapen maila eta aurreikusten den bilakaera), bai hainbat tokitan (Europa, Espainia, EAE, etab.) duen ezarpenaren ikuspuntutik. Horrekin batera, energia eolikoa sustatzeko diren planak eta estrategiak ere aztertuko dira; baita integratzeko erabilitako formulen nondik norakoa ere (planifikazio sistemak, potentzia instalatua, aurreikusten den bilakaera eta abar).
- EAEn energiaren lurralde eta sektore planifikazioaren azterketa (helburuak, aurreikuspenak, arauak eta egungo irizpideak. Honako atal hauek, gutxienez, garatu behar dira:
 - Energia plangintza (baliabide berriztagarriak, energia elektrikoa eta energia eolikoa).
 - Lurralde plangintza eta energia eolikoaren eta energia azpiegituren inguruko xedapenak (Lurralde Antolamendu Zuzentarauak, Lurralde Zatikako Planak eta Energia Eolikoaren LAP koordinatu behar den beste plangintza batzuk).
- EAEn elektrizitatea banatzeko sarearen egungo egoerari buruzko azterketa, eta parke eolikoetan sortuko den energia emateko edo bideratzeko izan litezkeen guneen edo lineen identifikazioa.
- Planaren justifikazioa, helburuak eta deskribapena egitea.
- LAPi aplikagarriak izan dakizkioken araudia aztertzea. Araudia energia, lurraldetasun eta ingurumenarekin zerikusia duten alderdiei loturik egongo da.
- LAPen antolamendu esparrua definitzea. Hala, EAEn izan daitezkeen edozein garapen eoliko berria edo dagoenaren handitzea LAPen sartu behar dela ulertzen da, itsasoko parke eolikoak izan ezik. Beraz, hasieran, EAeko lurralde osoa, hiriguneak barne, hartu behar da kontuan LAPen antolamendu esparrua finkatzerakoan.
- Baliabidearen (haizea) azterketa eta EAeko ingurumen eta lurralde alderdien azterketa egitea (bide hartzailea).

EAEn baliabide eolikoaren banaketa baldintzatzen duten faktoreak eta haren ugaritasuna aztertu behar dira. Aztertu beharreko gutxieneko atalak hauexek dira:

- Haizearen ezaugarri nagusiak EAEn
- Sektorekako egoera eolikoa EAEn, haizearen baldintzak, ekoizten den energia
- Energia eolikoa ustiatzeko izan litezkeen guneak, haien kartografia barne. Horren harira, identifikatzeko irizpideak, gune bakoitzean ustiatu ahal den energia kantitatea eta aurreikusten den ekoizpena azalduko dira

Bestetik, ingurumen eta lurralde aldetik bide hartzailearen sentsibilitatea aztertu beharko da, honako lan hauek, gutxienez, egiteko konpromisoa hartuz:



- Ingurumenaren ikuspegitik lurraldearen ezaugarriak deskribatzea, kartografia barne.
- Garapen eolikoaren ondorioz, eragindakoak edo kaltetuak izan litezkeen ingurumen alderdi nagusien identifikazioa, hala nola hegaztiak, flora, habitak, interes bereziko naturguneak (ENP, Natura 2000), konektibitate ekologikorako funtsezko guneak, ondare kulturala eta abar.
- Identifikatutako faktoreen eraginaren eskala zehaztea (toki, eskualde eta herrialde mailan).
- Lurraldearen ingurumen sentsibilitatea aztertzea, kontuan hartzen diren ingurumen faktore guztiak integratuz. Azterketa hori lurralde osoan (kokaleku egokienak edo bideragarrienak izan daitezkeenak aukeratzeko lagungarria izango dena) edo garapen eolikoa izateko potentziala duten aldeetan egin daiteke.

Bi faktore horien integrazioa da gakoa lurralde eredurako. Plana prestatuko duen taldeak, idazkaritza teknikoaren bidez, lurralde eredu koherentea eratzeko egokiena den azterketa-eskema proposatuko dio lanen zuzendaritzari.

Bestaldetik, planaren eraketaren hasieratik bertatik ingurumen alderdiak behar bezala integratzeko xedez, funtsezkoa da Ingurumen Iraunkortasunaren Txostena prestatzea eta idaztea LAPen lurralde ereduaren oinarriak ezartzen dituen lehen dokumentuarekin batera.

Azterketa eta diagnostikoari lotutako lehen fase horretatik abiatuta, Energia Eolikoaren LAPen lurralde eredu zehaztea helburu duen **bigarren faseari** ekingo zaio. Lurralde ereduaren egitura, funtsean, baliabide-bide hartzaile faktoreen integrazioaren menpe egongo da. Dena dela, Itun Eolikoa oinarritzen den helburu nagusiak eta irizpideak kontuan hartuta egingo da. Hain zuzen ere, LAP berritzeko erreferenteak eta ardatzak direnak. Horrekin batera, ingurumen alderdiak era egokian integratu beharko ditu haren edukietan. LAPen lurralde ereduaren egituratzeko, plana prestatuko duen taldeak proposamenik egokiena egiteaz gain, proposamen hori justifikatu egin beharko du.

Bigarren fase horren barruan, honako alderdi hauek argitu eta zehaztu beharko dira:

- Ingurumen alderdien integrazioa Energia Eolikoaren LAPen barnean.
- Energia Eolikoaren LAPen garapenak ekarriko duen ingurumen inpaktuaren nondik norakoa EAEn. Atal horri dagokion informazioa beste dokumentu batean prestatu ahal da, ISA delakoan; Hala ere, haren ondorioak LAPen beraren idazketan aplikatu beharko dira, planaren barruan ingurumen integrazio handiena bermatze aldera.
- EAEn potentzial eolikoa garatzeko bideak. Zehaztapen teknikoak nahikoak izango dira lehenago aipatutako ingurumen inpaktua ebaluatzeko (1) eta LAPen harira abian jarriko diren egitasmoak garatzeko ziurtasun eza saihesteko (2).
- Energia Eolikoaren LAP integrazioa indarrean dagoen lurralde plangintzaren baitan. Ereduaren lotura maila argitzea eta indarrean dauden edo izapidetzen ari diren sektore eta lurralde planifikazioekin zein udal planifikazioarekin koordinazio bideak zehaztea.

Erabakiak

Erabakiak izeneko dokumentuan, modu artikulatuan, Energia Eolikoaren LAPetik eratorriko diren erabaki, arau, jarraibide eta irizpideak bilduko dira, eta interpretazioaren inguruko zalantzarik edo gatazkarik izango balitz, lehenetsuna izango du erabakiak deritzon dokumentuak, memorian edo eranskinetan diren proposamen, azterketa edo informazioaren aurrean.



Energia Eolikoaren LAPen erabakietan “praktika onak” izenpeko laburpena sartuko da, Energia Eolikoaren LAPek garatuko dituen egitasmoak definitzeko oinarri izango dena. Laburpen edo katalogo horretan egitasmoen diseinu eta gauzaperari lotutako erabakiak edo neurriak jasoko dira. Horrekin batera, zenbait proiekturen artean, elementu batzuk partekatzeke aukera ere sar daiteke katalogo horretan (bideratzeko lineak, azpiestazioak eta abar).

Planoak

Energia Eolikoaren LAPen erabakiak ulertzeko edo interpretatzeko behar diren planoak jasoko dira dokumentu honetan. Horretaz gain, lurralde antolamenduaren ezaugarriak ere bilduko dira dokumentuan. Energia Eolikoaren LAPen memorian egingo diren azterketei begirako informazioa soilik jasoko duten planoak dokumentu honetan sar daitezke edo planoei buruzko beste dokumentu batean sar daitezke.

Aipatutako planoen eskala eta izango duten oinarrizko informazioa Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailarekin ados jarrira zehaztuko dira. Nolanahi ere, eskala ez da 1:25.000 baino txikiagoa izango.

Eranskinak

Energia Eolikoaren LAPen memorian jasoko ez den informazio garrantzitsua, behar den oinarrizko informazioa osatzen duena, eranskinetan azalduko da. Gutxienez, honako informazio hau jasoko da eranskinetan:

- DOTen “Aplikazio Arauak” dokumentuaren 9. atalean eskatzen den “Udal Plangintzari Eraginen Dokumentu Osagarria” izeneko txostena.
- Ingurumen erakundearen txostenak eta Energia Eolikoaren LAP jendaurreko informazio fase guztietan jasoko diren alegazioei lotutako txostenak.

Ingurumen Iraunkortasunaren Txostena (ISA)

ISAREN edukiak 9/2006 Legeak eta 183/2003 Dekretuak xedatutakoa izan behar du kontuan. Beraz, txosten horretan azalduko den informazioaren ezaugarriek, zabalatasuna eta zehaztapen maila, besteak beste, ingurumen erakundeak bee Erreferentzia Dokumentuan ezarritakoari jarraituko diote.

Nolanahi ere, ISAREN prestaketa eta Energia Eolikoaren LAPena aldi berean egin nahi da, azken honen eduki eta metodologiarekin koordinatuz. Hartara, LAPen lurralde ereduak ziurtatu egingo du ingurumen alderdiak modu egokian integratzea, ingurumen eta teknika aldetik eredu koherentea bermatuz.

Planifikazio-fase honetan, ingurumen ebaluazioaren ahalegina garrantzi handikoa da honako informazio hau biltzeko:

- Energia eolikia garatzeko ingurumen eta paisaia inpaktuaren mailen definizioa.
- Energia Eolikoaren LAPek izan ditzakeen ondorioak edo eragina sartzeko maila horietan.
- Egitasmoak garatzeko promotoreei ziurtasuna ematea. Hartara, ingurumen ebaluazioak, egitasmo-fasean, inpaktu edo eraginen prebentzioan, zuzenketan eta konpentsazioan jarriko du arreta gehien.



LANEN ZUZENDARITZA. ESLEIPENDUNAREN SOSTENGUA ETA KOORDINAZIOA: IDAZKARITZA TEKNIKOAK

Agiri honetan adierazten diren lanen zuzendaritza Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailari dagokio. Sail horren arduraria izango da, besteak beste, idazkaritza teknikoak antolatzea edo eratzea, Energia Eolikoaren LAP eta bere ISA prestatuko duen taldeari laguntza emateko eta koordinatzeko. Laguntza eta koordinazio lanak honako gai hauetaz izango dira:

- Dokumentu teknikoak, dagoen informazioa, kartografia, irizpideak eta abar prestatzeko behar den informazioa eta ezagutza bideratzea.
- Informazioa lortzeko, banatzeko eta zentralizatzeko laguntza orokorra ematea.
- Egingo diren tarteko eta azken dokumentuen berrikustea.
- Plana izapidetzeko laguntza ematea: beste erakunde batzuei kontsultak egitea, erantzunak zentralizatzea, alegazioei erantzuteari begira, plana prestatuko duen taldeari laguntza ematea eta abar.
- Lan-mahai teknikoak eratzea eta sustatzea, plana izapidetzen arituko diren administrazio publiko guztiekin batera (erakundeekin lankidetzan jardutea eta informazioa trukatzeko, Energia Eolikoaren LAP prestatetan estrategia berdinak edo bateratuak finkatzeko).

Laburbilduz, idazkaritza teknikoak Energia Eolikoaren LAP prestatzeko lanak gainbegiratu edo ikuskatuko ditu, eta lan taldeari laguntza teknikoak emango dio. Horrekin batera, lan taldearen eta Eusko Jaurlaritzako Sailaren arteko harreman egokiak bermatzeaz gain, plana behin betiko onartu arte egin beharreko izapide guztiak modu zuzenean bideratzen lagunduko du. Idazkaritza teknikoaren arduraria izango da bilera egutegia eratzea, bai Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailarekin, bai plana prestatuko duen lan taldearekin egin beharko diren bilerena. Gainera, lan taldeak aurkeztuko dituen tarteko eta azken txostenak edo dokumentuak entregatzeko epeak ezarriko ditu.

Enpresa esleipendunaren aldetik, Energia Eolikoaren LAP prestatzeaz eta idazteaz arduratuko den zuzendari tekniko bat hautatuko du. Era berean, planaren ingurumen ebaluazioaz arduratuko den zuzendari tekniko bat izendatuko du.

Lanen zuzendaritzak, idazkaritza teknikoaren bidez, emango dituen jarraibide, dokumentu eta aginduen arabera egin beharko du lana enpresa esleipendunak. Konpromiso horretaz gain, ikuskaritza lanak egiteko erraztasunak emango ditu. Hala, eskatzen zaion informazio oro emango du eta lanen inguruko gorabeherak jakinaraziko ditu.

Plana eta bere ingurumen ebaluazio estrategikoa izapidetzen diren bitartean egingo diren txostenak idazle edo prestatzaile teknikoak sinatuko ditu eta taldearen zuzendaritza teknikoak gainbegiratuko ditu.

LANEN AURKEZPENA

Dokumentazioa paperean eta euskarri magnetikoan aurkeztuko da, hizkuntza ofizial bietan (gauzatzeko hizkuntza baldintzen arabera, agiri administratibo honetako 33. atala), eta hautatuko den idazkaritza teknikoaren bitartez helaraziko zaio promotoreari.

Aurkeztu behar den dokumentu bakoitzeko 3 kopia emango dira paperean eta kopia bat formatu digitalean.



Paperean emango den kopia DIN-A4 formatuan aurkeztuko da, edo proiektuaren zuzendaritzari egokiena iruditzen zaion formatuan. Tamaina hori bera izango dute marrazkiek, eskemek eta dokumentazio grafikoari lotutako plano tolestuek. Formatu digitalean aurkeztuko den kopiak honako informazio hau izango du:

- a) Erreproduzitzeko dokumentazioa: Adobe pdf edo antzeko formatuan aurkeztuko da paperean entregatuko den kopia bat. Era horretan, entregatuko diren kopia berdinak egin daitezke paperean.
- b) Argitaratzeko dokumentuak: Microsoft Office XP bateragarriak diren formatuetan aurkeztuko dira testuak, taulak, irudiak, marrazkiak, argazkiak eta eskemak.
- c) Informazio geografikoa: Eusko Jaurlaritzaren GIS korporatiboak ezarritako eskakizun teknikoak bete beharko ditu proiektu honetan sortuko den informazio geografikoak.